

HEGATS

53

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAREN
LITERATUR ALDIZKARIA

IXIAR ROZAS
SAMANTA SCHWEBLIN
KEPA ALTONAGA
RAMON SAIZARBITORIA

HARKAITZ CANO
KATIXA AGIRRE
ITU BANDA
KATAKRAK, KAXILDA eta GAROA

5€

ISSN: 1130244-5



IXIAR ROZAS

36. Orria



HEGATS

HEGATS

6

URTEKO GERTAKARIAK

8

MIKEL PERUARENA

14

HARKAITZ CANO

18

ITU BANDA

22

SAMANTA SCHWEBLIN

28

KEPA ALTONAGA

32

ERRACTUS

36

IXIAR ROZAS

42

67. ORRIA

46

KATIXA DOLHARE

50

BERRITU ALA HIL

56

JOSE LUIS OTAMENDI

60

RAMON SAIZARBITORIA

62

KATIXA AGIRRE

66

EAKO POESIA EGUNAK

HEGATS KREDITUAK

Argitaratzailea: Euskal Idazleen Elkartea.
Zuzendaria eta koordinatzailea: Lander Garro.
Diseinua eta maketazioa: Savanna Studioa.
Irudiak: Lander Garro.
Erredakzioa: Leire Palacios, Danele Sarriugarte, Yurre Ugarte, Eider Rodriguez, Edorta Jimenez, Peru Iparragirre eta Lander Garro.
Azala: Savanna Studioa eta Lander Garro.
Azaleko pertsonaia: Peru Iparragirre.
Inprimategia: Antza.
Harpidetzak egiteko: eie@idazleak.eus
ISSN: 1130244-5





8



32



62





LANDER GARRO

Handitzen, handitzen

Han eta hemen, sarri askotan entzuten da euskal literatura industria sendo bat dela. Ugaria, anitza eta ona omen da geure literaturan ekoizten dena, eta ia eragile ororen ahotan dago, dagoeneko, geure erronka ez dela sorkuntza, ez bada sorkuntza horren ikusgarritasuna. Izan ere, irakurlea da mende hasiera honetako hitz gakoa, sentimendua baitago, eta alferrik da horren alde hitz egin duten ahotsak hona ekartzea, egiten dena, ona izanagatik, ez dela behar bezain ongi irakurleengana ailegatzen. Nolabait, euskal irakurleen fideltasuna handiagoa zen geure literatura urriagoa eta eskasagoa zenean, orain dena baino. Garaiak aldatu direla aipatzen da maiz, militantziaren sentimendua pittin bat agortu dela, ikusentzunezkoek literatura ordezkatu dutela, eta abar. Kontu bat, ordea, oso garbi dago: ikusgarritasuna da geure erronka handiena. Egiten dena ongi azaldu, ongi zabaldu, txukun eta erakargarri paratu egon behar duen toki guztietan, irakurleak ikus (eta, beharbada, sinets) gaitzan. Zeren eta egia baita, erakargarritasuna eta sinesgarritasuna oso lotuta daudela irudiaren gizarte honetan, eta kalitatezkoa *den* horrek derrigor *eman behar* duela kalitatezko. Eskuen artean daukazun HEGATS honek, nolabait, logika horri jarraitu nahi izan dio.

Gaur egungo aldizkarien komunikazio metodo, tresna eta trikimailuak jarri nahi izan ditugu geure letren zerbitzura, dagokien apaintasuna eta distira ematearren. Ez gara gaurtik biharrera erraldoi izango, baina zentimetroz zentimetro hazten bagara, geroz eta handiagoak izango gara. Bada zerbait.



JASONE OSORO

Objektua

Emakumezko-objektua izatea nahi genuke HEGATS berri-tu hau. Begira dezala irakurleak, ukitu dezala, eskuartean izan, erabili, desiratu, maitatu, praktika dezala sexua nahi badu, bertan ikusi/irakurri dituenekin.

Gizonezko-objektua izatea nahi genuke HEGATS berri-tu hau. Begira dezala irakurleak, ukitu dezala, eskuartean izan, erabili, desiratu, maitatu, praktika dezala sexua nahi badu, bertan ikusi/irakurri dituenekin.

Letren subjektibotasunetik abiatuta, nahi genuke objektu desiratu bat izatea HEGATS. Nahi genuke zirikatzailea izatea, polemikoa behar bada, azaltzea komunikabideetan, egotea kultur etxeetan, liburutegietan, tren estazioetan, tabernetan, ginekologo eta urologoen kontsultan, komune-tan, publiko zein pribatuetan.

Letren subjektibotasunetik abiatuta, nahi genuke edukion-tzi oparoa izatea objektu bilakatu dugun aldizkaria. Izatea sakona, aberasgarria, interesgarria, mamitsua, hausnarke-ta sustatuko duena. Izatea memorian geratuko dena, harik eta hurrengo zenbakia kaleratuko den arte.

Ez dugu hori guztia lortuko, badakigu, baina maite ditugu objektuak eta maite dugu subjektibotasuna, horregatik, diot, jolas atsegina izan da EIEren izenean HEGATS berri-tuaren estreinako zenbaki honen hitzaurrea idaztea.

Gu saiatu gara koaderno itxuroso baten letra onarekin idazten, argazki ederrak ateratzen. Orain, irakurle, zuri dagokizu: aldizkari hau mesanotxean utzi edo zaborretara bota. Boterea zeurea da.

URTEKO

GERTAKARIAK



Apirilak
21-Maiatzak 1

1



Apirilak
23

2



Maiatzak
5-16

3



Maiatzak
7

4



Maiatzak
23-28

5

Gutun Zuria letren nazio-
arteko jaialdiaren VIII.
ekitaldia ospatu zuten Bil-
bon. Urtero bezala, handik
eta hemendik tankera eta
herrialde askotako idaz-
leak izan ziren, besteak
beste argazkian ageri den
Fernando Arrabal, 1955az

Danele Sarruagarte eta
Parinoush Samée idazleek
Gipuzkoako liburu-sal-
tzailleen elkarrekin ematen
duen Euskadiko Zilarrez-
ko Sariak irabazi zituzten.
Sarruagarte elgoibartarrak
Erraiak nobelari esker ira-
bazi zuen saria, eta Santee

Literaktum jaialdi litera-
rioa ospatu zen Donostian.
Bertako nahiz atzerri-
ko dozenaka idazleek
parte hartu zuten 2015eko
ekitaldian. Argazkian
ageri dena, Ceas Noote-
boom herbehererarra da.
Literaktum-ek 1995ean

Mikel Peruarena Ansaren
Su zelaia liburua jaso zuen
111. Akademiaren saria.

Literaturaren V. ekitaldia
egin zen Zarautzen (lehen
hiru edizioak Iarrabetzun
izan ziren). Euskarazko
literatur sorkuntzaren
azken nobedadeen berri
izan zuten azokara ger-
turatu zirenek, zuzeneko
emanaaldiez gain.



Ekainak
6

6

Hamadi harrien ahotsa liburua aurkeztu zuen Gerediaga elkarteak. Liburuak elkartearen eta azokaren mende erdiko historia jaso du, Jon Irazabalen eta Raquel Calvoren eskutik.



Irailak
8

7

James Joyceren *Ulysses* euskaraz argitaratu zuen lehen aldiz Igela argitaletxeak. Xabier Olarrak itzulia, literatura anglosaxoiaren liburu kanonikoetako bat da, eta munduko literaturako aipatuenetakoa. Jatorriz-



Irailak
11

8

Katalin Miner hermaniarak irabazi zuen Igartza Saria. Igor Estankonak eta Danele Sarringartek osatutako epai-mahaia bere *Kafe beteak* proiektua hobetsi zuen, eta 6000 euroko laguntza izango du nobela izan nahi duen



Urriak
2

9

Xabier Montoiak Poloniako Wrocław Short Story Festival-en parte hartu zuen. Sonia Kolavzec i itzultzailearekin batera irakurketa bat egin zuen, argazkian ageri den gisa ikusgarri horretan. Ekitaldi hartan Poloniako,



Urriak
29

10

Miren Gorrotxategirentzat Zubikarai Beka. Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak ematen duten beka Gorrotxategik irabazi zuen. Xabier Mendi-gurenek, Leire Bilbaok eta Ana Urkizak osatutako

koan *Ulysses* izena daukan liburu mardul honek, Molly Bloom pertsonaia gogoangarriaren hausnar eta kezka intimoen berri ematen digu, eta 1922an argitaratu zuen Joycek, 40 urterekin. Lehenagotik ere, bada Joyceren lanik

proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Islandiako, Liechtensteinek eta Hego-Koreako hainbat idazlek parte hartu zuten.

epai-mahaia 13 lanen arteko onena azpeitiarrak aurkeztutakoa zela ebatzi zuen, eta, horri esker, *33 ezkl* izena izango duen nobela idazteko 6000 euroko laguntza jasoko du idazleak.

euskarara ekarria; nabarmenak, *Artistaren gaztetako potreta* (Ibaizabal, 1992) eta *Dublinarrak* (Alberdania, 1999), biak Irene Aldasorok itzuliak.

MIKEL PERUARENA

**“GERRARI BERDIN ZAIO ZEIN
HILKO DEN ETA ZEIN EZ”**

Testua: Amagoia Iban

Ez da erraza lantokian egunero parez-pare duzulari elkarrizketa egitea, eguneroko hizketaldietako esanak ez errepikatzea. Erraza da Mikel Peruarena Ansarekin (Ereñotzu, Gipuzkoa, 1978) berriketan aritzea. Iaz zen Lehen Mundu Gerraren hasiera mendurrenaren urtea, eta iaz eman zuen argitara Lehen Mundu Gerran girotutako nobela: *Su zelaiak* (Susa). Eta hortxe kazetaria ere baden idazlea, *Berria*-ko Andoaingo egoitza atariko bankuan eserita, ilea lotzen, tabako hariak biltzen, erretzeko paperari listua ematen, zigarreta sutzen.

Abuztu arratsalde bat zen, Euskadi Sarietarako finalista izateko puxtarriak bazituela entzundakoan, esan zuen idazleak: “Jakinarazi didate dagoeneko banai-zela”. Finalista izateari uko eginez, gutuna bidalia zuela erantsi zuen. Hortxe geratu zen kontua. Bueno, ez erabat. Finalista ez, aurtengo Euskadi saridun bilakatu dute azkenean. Eta finalista izateari bezala, sariari ere uko Mikel Peruarena Ansak. Hortik gaurdainokoak, ezagun samarrak dira. Idatziz jakinarazi zituen bere ukoaren arrazoiak, eta, gero, isiltasuna.





Euskadi Saria ez onartzeko zure idatzizko arrazoiek OH! EUZ-KADI aldizkarian 1979an argitaratutako "Sariak eta txapelak" artikulua dakar gogora. Beste asko "Utikan Euskadi sariak" manifestuarekin akordatu dira. Azken horren sinatzaileen artean zeunden. Manifestu kolektiboa zen. Zure oraingo azalpenak erabaki pertsonaletik gehiago duela ematen du.

Saria ukatzeko, bi arrazoi multzo-edo neuzkan. Batzuk pertsonalak ziren, eta besteak, esan dezagun, ez dakit... politikoak, edo sozialak. Begira. Garai batean lehiaketa dezentetara aurkeztu nituen nire lanak. Batzuk irabazi nituen, eta beste batzuk, ez, baina ongi gogoan daukat 2006an Irun Hiria Saria eman zidatela, poesian. Kontua da jakin nuela beste lan batek bi boto eta neureak hiru jaso zituela. 10.000 euro eman zizkidaten, eta liburu argitaratu. Eta beste lan hark ez zuen ezer jaso; isilduta gelditu zen. Orduan konturatu nintzen horrelako sariak eta lehiaketak zein apetatsuak eta txiripazkoak diren: boto bakar batek balantza irauliko zukeen, eta neu izango nintzatekeen itzalean gelditutakoa. Geroztik ez dut lanik aurkeztu lehiaketa batera. Hiru-lau-bost lagunek epaimahai bat dagoenean, berdin du lehiaketa, saria edo beka izan, oso alde txikiagatik eta, azkenean, baten edo bestearen gustuengatik erabakitzen da, askotan, zein atera argitara, eta zein utzi itzalean. Eta ni tartean baldin banago, deseroso sentiarazten nau horrek.

Zergatik?

Ezin direlako konparatu poesia liburu bat eta nobela bat, edo bi nobela... Literatura ez da egia-gezurra estiloko test bat, ez da matematika ariketa bat edo fisikako formula bat: zuzena da vs. okerra da. Nola erabaki liteke liburu hau edo hura den hobea? Batzuetan, akaso, oso argi egongo da liburu bat txar-txarra dela, ados, baina nola erabaki liteke liburu edo lan bat dela hoberena, denetan onena, norbere irizpide subjektiboengatik ez bada? Errespetu guztiarekin esan nahi dut, baina niri ezinezkoa egingo litzaidake epai-mahai batean parte hartzea.

Urtea 111 Akademiarekin sariarekin hasi duzu, bada.

Bai, liburu honengatik. Eta asko estimatzen dut sari hori, irakurleena delako, eta ehun lagunek baino gehiagok ematen dutelako botoa. Ilusioa egin zidan sariak, baina banekien bozketa oso estua izan zela Iban Zalduaren lanarekin. Horregatik, ilusioz hartu nuen saria, baina sentitu nuen desosegu puntu bat ere, berriz ere. Eta liburu Euskadi Sarirako hautagai zela jakin nuenean, badaezpada ere (ez nuelako pentsatzen inondik ere irabaziko zuenik), gutun hura bidaltzea erabaki nuen. Neure buruarekin bakean egoteko modu bat zen. Hortik aurrera, epaimahaiak hartu dituen erabakiak harenak izan dira. Nahiago dut horretan ez sartu, baina Euskadi Sarien arauak ez diote egileari aukerarik uzten parte hartzeari uko egiteko, behin saria emanda soilik egin diezaiokezu uko, eta arau horiek ekarri gaituzte egoera honetara, nik ez nuelako asmorik kontu hau publiko bihurtzeko.

Zure ukoaren arrazoi politikoak azal itzazu.

Argi esan dezagun: literatura oso bazterreko kontua da. Mundu guztiak esango dizu "gehiago irakurri beharko nuke...", baina... *politesse* bat dago literaturaren inguruan; uste partekatua da, edo hori esan behar da behintzat, denok irakurri beharko genukeela, baina, praktikan, oso ekintza minoritarioa da. Eta administrazioak, hemen eta han, literaturaz-letasuna eta literatur sorkuntza (alegia, sortzaileak) bultzatzeko egiten duen jarduera, azkenean, horren islada da, gizartea denaren ispilu bat. Normalean, sari batzuk edo lehiaketa batzuk antolatzen dira, urtean behin fokua jartzen zaio idazle bati, mediatizatzen da, milaka euro batzuk gastatzen dira, eta kito, buelta lehengora.

Ez al dago sari onik? Eta beka onik? Eta erakunde publikoek diruz

Iruditzen zait ez dagoela kultur sortzaileak laguntzeko politika bat, eta ezin dela sari batzuekin hori egintzat eman

lagundutako sorkuntza lan onik?

Ez nago sari, beka, lehiaketa eta abarren kontra, baina horiek literatura sustatzeko bitarteko bakarrik izatearen kontra, bai. Idazle edo sortzaile bati urtean behin diru bat emateak ez ditu gure arazoak konpontzen. Iruditzen zait ez dagoela kultur sortzaileak laguntzeko politika bat, eta ezin dela sari batzuekin hori egintzat eman. Eta hau ez da idazleen problema bakarrik: bertsolariak, antzerkilariak, musikariak, zinemagileak... Nola bizi dira herri honetan? Zertaz bizi dira, zein baldintzatan, zer bestelako lan egin behar dituzte bizitzeko? Inori inporta zaio?

Administrazioak dio kultur industria sustatu behar dela.

Eta ongi dago, sortzaileek behar dute azpiegitura bat eta industria bat, beren lanak zabaltzeko. Baina errealitate paradoxiko bat dago horren atzean: kulturaren pentzura bizi diren soldatapeko langile asko daude (programatzaileak, managerrak, editoreak, zuzentzaileak, liburu saltzaileak, kultur teknikariak, liburu banatzaileak...eta abar), eta beren sormenetik bizitzeko aukera duten oso sortzaile gutxi. Begira, liburu fisiko bat erosten duzunean, ordaintzen duzunaren %10 ematen diozu idazleari; gainerako guztia liburuaren industria sostengatzeko pagatzen duzu. Eta CDekin, gauza bera. Autoedizioaren bidea dago, baina horrek zabalpena mugatzera eramaten zaitu gehienetan. Seguru asko ezin du bestela izan, baina ondorioa paradoxikoa da: sortzaileei esker bizi da industria, baina ez alderantziz. Hau diot, onartuz, berriro, sortzaileak behar duela industria hori, e! Eta administrazioari, ez instituzio jakin bati, denei orokorrean, ez diet asmo handirik ikusten hori aldatzeko. Urtean behineko sari batzuekin ezin dira zulo horiek tapatu. Gogoeta askozaz ere sakonago bat beharko genuke.

Eta beste kontu bat ere badago, bukatzeko. Hizkuntza gutxitu eta bazterreko bat gara. Gure atari berean bizi den jendeak ere ignoratzen gaitu. Tara eta ezin asko sortzen dizkigu horrek, kontziente izan beharko genuke, eta ez genituzke imitatu behar inguruko literatur sistemak. Normalizazioa, gure kasuan, ez da Frantziaren igualak izatea: milaka irakurle potentzial batzuk baino ez daukagu, ez milioiak! Ezin dugu merkatua, industria eta horrelako kontzeptuekin itsutu, merkatuaren, kontsumismoaren eta konkurrentziaren logikak gurea bezalako bazterreko hizkuntzak irenstera jotzen dutelako.

Aizu, Su zelaiak argitaratu zenetik mende bat pasatu dela dirudi.

Bai, burua beste toki batean daukat orain.

Burbuila batean sartu omen zinen hura idaztean. Izan al zenuen inoiz liburu bukatu aurretik burbuilak eztanda egingo zuelako beldurra?

Ez. Nik aipatu izan dudana burbuila horretan idazterakoan sartzen naiz. Nire problema gehiago izaten da zer kontatu, eta nola kontatu. Hainbeste gauza dago, neronek ere denbora faltagatik leitzen ez ditudanak... zertarako eskribitu behar dut, bada? Merezi duen zerbaite izan dadila, ez dagoena, zerbaite berezia, diferentea, beste ahots edo beste estilo bat, zeozter ekar dezala, saiatu behintzat... ni horrek jaten nau. Montoiak egin zuen bere ekarpena Lehen Mundu Gerlaz [Hezur gabeko hilak (Susa, 1999)]. Gero konturatzen zara gutxi dela, gai bat normalean ez dela agortzen liburu bat egiteagatik, baina niri kostatu egiten zait ate hori pasatzea eta eskaintzeko zeozter interesgarria badudala erabakitzea. Horra, hori esatera ailegatzea kostatzen zait gehiena. Eta bidean gauza



asko galtzen zaizkit. Behin garbi samar ikusten badut nondik jo eta zerbait atera litekeela hortik, burbuilan sartzen naiz, orduan bai.

Liburu hau idatzi gabeko liburuen historiara pasatzeko zorian izan al da inoiz?

Askotan. Pentsatu bost urte pasatu nituela idazten hasi aurretik. Igual hiru edo lau hasiera diferente imajinatu dizkiot, beste hainbeste pertsonaia nagusirekin. Baina ez nuen aurkitzen neure ahotsa, ez nuen asmatzen zer zen kontatu nahi nuena, ez nekien nola sartu, sartu nahi nituen ahots eta pasadizo guztiak... Enbutuaren ideia ailegatu nintzen arte. Baina, bai, askotan pentsatu izan dut ez nuela sekula idatziko. Ho-rregatik ere gelditu nintzen gustura bukatu nuenean; arindu handia sentitu nuen.

Montoiaren *Hezur gabeko hilak* aitatu duzu. 1999an argitaratu zuen. Zein neurritan eduki duzu gogoan zeurea idazterakoan?

Idazten hasi aurretik bai, nire kezka zen ea zer eman nezakeen nik Montoiak eman ez zuena. Oso presente neukan liburua. Haren ariketa ez errepikatzeko nahi bat banuen. Baina behin idazten jarrita, ez diot jaramon handirik egin. Garai batean irakurri nuen -zer argitaratu zuten, orain dela 16 urte?-, baina ez dut berriro leitu. Nahita akaso. Duela mende bateko kronikak bai, horiek irakurri ditut. Askok. *Eskualduna* astekarikoak-eta.

***Eskualduna*-ko kronikok oso gerra zaleak ziren. Eta ez zioten ger-**

laren alde egoteari utzi gerora ere. 36ko gerran frankisten alde egin zuen, eta Bigarren Mundu Gerran nazien alde. Aldizkari hark euskaldunen artean utzi zuen arrastoa ez da makala.

Bai, Ipar Euskal Herriko euskaldunen bizia asko mediatizatu zuen mende erdi batez. Harrigarria ere bada... Badaukagu hor euskal prentsaren aitzindari bat, mende erdi bat baino gehiagok aritu zena argitaratzen, eta ia inor ez da hartaz gogoratzen. Esango nuke gure unibertsitateetan ere apenas ezagutzen dutela, eta pena da. Gure kazetaritzaren aitzindari guztiak hor daude, eta ez ditu ia inork ezagutzen. Gure lehendabiziko gerrako berriemaileak ere han agertu ziren, 1914an. Batzuetan ematen du historiari ez dugula eduki, eta begira zer kontu dauzkagun. Pentsatu euskara baturik ez zegoen garaian, eta herritar eskolatuak ere hainbeste ez zirenean, XX. mende hasieran, 5.000 harpidetza baino gehiago edukitzera ailegatu zela! Gaur eguneko euskal prentsarentzat ere inbidia izateko moduko kopuru bat da.

Zure liburu honek agerian utzi du oso gure hegozentrismoa. Hizkera ulerterraza-ulergaitza bikotea behin eta berriro aipatzea, gaia bera euskal literatura modernoan ia ukitu gabea izatea... ez al da hori dena oso adierazgarria?

Begira, interesgarria da hori ere. Ez zen liburuaren helburu nagusia, baina bazuen zerbait hor. Ez ote garen ari beti gai beretsuetaz... Gure historiak askorako ematen du, eta baditugu asko miatu gabeko pasarte batzuk. Akaso autopsikoanalisi pixka bat egin behar dugu oraindik gure historiarekin [barre txikia]. Bai, nik uste begiratu eta berrikusi behar ditugula gauza batzuk, beti toki berera begiratzen ari garela. Eta badaude garai eta gai batzuk periferian geratu direnak, gehiegi landu gabe, nahiz eta interesanteak izan. Banuen interesa fokoa horra eramateko, gerra hark gudan, gaur egungo gizarte antolaketa eta pentsatzeko formetan izan duen eraginaz gogoeta egiteko. Bazen horrelako kezka bat.

Irakurlearengandik jasotako iritzietatik, zerekin geratu zara?

Orokorrean, jendea hasieran beldurtu egiten dela; pertsonaiekin, hariarekin eta hizkuntzarekin pixka bat galduta ibili dela, baina, puntu batetik aurrera, hariari heltzen zaiola eta ikusten dela nondik doan kontua. Egongo dira leitu ezinik utzi dutenak, baina ez didate esan. Gero, batzuei ikaragarri gustatu zaizkie gerrako pasarteak eta beste parteak ez hainbeste, eta beste batzuei alderantziz: gerrakoarekin itota ibili dira eta bestea hasteko desiatzen.

Liburu hasierako pertsonaia erauntsia nola hartu dute irakurleek?

Hori ere askotan aipatu didate. Eta bitxia iruditu zait pertsonaia nagusi bat ez garatzeak irakurleen artean sortzen duen ezinegona. Ohituta gaude fikzioa horrela izatera. Oso janda daukagu nola izan behar duen narrazio batek, bai literaturan bai zineman: protagonista nagusi bat, bigarren mailakoak... Gu ez gara, gure aiton-amonak bezala, hutsetik hasten. Zinema aretora goazenean ere, ikus-entzunezko heziketa bat darabagu gurekin, eta narrazio mota hori ez aurkitzeak ezinegona sortzen digu. Hori ere erronka bat zen liburuan.

Ezintasun batetik abiatuta etorri zen erabaki hori. Pertsonaia bakar bat aukeratu eta haren istorioa bakarrik kontatzeko ezintasunetik. Hainbeste jende eta gertaera neuzkan buruan... Ezintasun horrek, nire ustez, zerbait positibora eraman ninduen azkenean, enbutuaren egitura horretara alegia. Liburuaren egitura ongi lotzen zaio kontatu nahi nuen istorioari, edo hori pentsatu nuen momentu hartan behintzat. Eta egiturak ekartzen zidan idazketarako erronka bat ere, ohiko narrazio bat ez egitearena. Gustatzen zait neure buruari halako erronkak jartzea. Goazen istorioak beste modu batera kontatzera. Erakartzen nau horrek. Eta, azkenean, emaitza hori da, begira: gerretan jendea hil egiten da, eta ez dakigu nor geratuko den bizirik. Bada, horixe da liburua. Ez dakigu zein geratuko



I. MUNDU GERRA EUSKAL LITERATURAN

SAIAKERA

Lehen Mundu Gerla eta Euskal Herria.

Eneko Bidegain
Elkar, 2014

MEMORIAK

LVII.a gerlan.

Joan Elizalde Zerbitzari
Patri Urkizuk prestatuturiko edizioa.
Alberdania, 1995

KRONIKAK

14eko Gerla Handia.

Jean Saint-Pierre Anxuberro,
Ibaizabal, 1998

Guda Nagusia 1914-1918.

Ebaristo Bustinza Kirikiño
Labayru, 1990

Gerla Handia 'Eskualduna' eta 'Euzkadi' aldizkarietan.

Eneko Bidegain
Utriusque Vasconiae, 2009

LITERATURA

Piarres I eta II.

Jean Barbier
Ibaizabal, 1996
Euskal Editoreen Elkartearen Klasikoak

Hezur gabeko hilak.

Xabier Montoia
Susa, 1999

Egiatzko argia.

Piarres Lafitte, 1933
Antzezlanak.

den bizirik. Gerrari berdin zaio zein hilko den eta zein ez.

Su zelaia-eko pertsonaia nagusia ez al da, bada, gerra moderno guztien ama omen den gerra?

Pertsonaietako bat da gerra, bai. Eta egia da, 1914koan azaldu ziren urpekoak, tankeak, bonbardaketak, lubakiak... Lehen aldia izan zen, gainera, gizonezko populazio osoak gerrara altxatu zituztenak. Beraz, nolabait ere, gero XX. mendean izango ziren gerra horien aitzindaria izan zen 1914ko gerra hura, gerra totalaren ama edo. Liburua idazten aritu naizen bitartean, askotan pentsatzen aritu naiz gerrara joan ziren gizon haiek XIX. mendetik XX. mendera igaro zirela jauzi bakar batean.

Genero belikoaren zalea al zara?

Ez berez. Ez zaizkit asko gustatzen gerren ingurukoak, baina azken mende eta Erdiko historia begiratzen badugu, euskaldunak zein gerratan egon diren eta zeinentzako gerrak egin dituzten-ditugun ikusten badugu, gure historia argitzen laguntzen du. Gerra kolonialetan, gure arteko gerretan, inperio batzuentzako gerretan egon gara: Thailandian, Marokon, Kuban, Filipinetan... Orduan, gerrek nola konfiguratzeko dituzten gizarteak, eta gerren ondorenak zer uzten duen... oso gai interesantea dela uste dut. Parte handi batean gerrek konfiguratzeko dituzten bizi garelako. Estatuak ere, azken finean, gerra batzuen emaitza besterik ez dira. Horrela bizi gara gerra batzuk era batera izan eta bukatu direlako eta ez beste batera. Gerrak abiapuntu ona iruditzen zaizkit gure buruari buruz gogoeta egiteko, zer garen eta zer izan gintezkeen pentsatzeko. Eta bueno, gerrak oso nobeleroak dira. Muturreko egoera batean jartzen ditu pertsonaiak. Bitarteko asko ematen ditu. Ez naiz berez genero zalea, baina...

Gerra gure egunerokoaren errutinaraino sartuta dago gaur egun ere. Albistegiak beteak ditugu hango eta hemengo fronteetako irudiak. Duela mende bat baino askoz informatuago gaudela diogu; 1914ean frontera zihozenak ezjakintzat ditugu. Gaur egungo tropak jakintsuagoak ote dira?

Nik ezin bat sentitu dut liburua idazten nuen bitartean neure burua imajinatzeke egoera horretan. Oso erraza da gaur egungo begiekin epaitzea, baina ehun urte atzera egin beharko genuke, hango mentalitatera... ea zein familiatan sortuko ginatekeen. Hamaika faktore daude gure esku ez daudenak, eta ezin dugu jakin inondik inora ere zer egingo ginatekeen.

Nik uste dut oso litekeena dela gauza bera edo oso antzekoak egitea. Gaur egun horrelako egoera bat biziko bagenu ere, ez dakit nik oso diferenteak izango ginatekeen. Portugalek gerra ireki batean inbadi-tuko bagintu, zerbait esatearren, zer egingo genuke? Galdera horrek jan egin nau liburua idazteko momentu batzuetan: "Zer egingo nukeen nik horrelako muturreko egoera batean egon banintz?". Guk uste dugu hemen asko ikasi dugula eta asko aurreratu dugula, baina... Beldurrak lan asko egiten du gaur egun ere. Propaganda eta enparauak horretan oinarritzen dira. Arrotzarekiko beldurra, jabetza galtzeko beldurra... Shock-aren teoria horixe da.

Kazetari zara ogibidez. Horrek eraginik ba al du zure idazle lanetan?

Sentsazioa daukat azkenengo honetan kronikarako joera bat dagoela. Ez dakit nahita egin dudana ala ez, baina hala iruditzen zait. Bertan kontatzen ditudan asko benetan gertatutako istorioak dira. Asmatutako kontuei ere kronika itxura ematen saiatu naiz, egiantza ematearren. Eta hainbeste istorio nituen, oso zehatzak, zuzenean eman beharrekoak... Seguruenik, estiloan badu eragina. Azken batean, eguneroko gure lana, nahi gabe ere, praktika bat da. Ez dira gauza bera, inondik inora ere, baina zer eta nola esan erabaki behar izaten dugu. Narrazioan, normalean, hari mutur nagusi bat daukazu. Gero, kontua da zuhaitza zenbat zabaltzen den, zenbat adaska sortzen zaizkion. Hor norberaren interesa, estiloa, sartzen dira. Horretan, ez dago kazetaritza estuasunik. Eta lan horretan estutu nintzen ni. Buruan neukan istorio bakoitzerako pertsonaia eta liburu bana eraiki izan banu, bizitza osorako lana nuke. Eta ez daukat gai honetan aditu bihurtzeko inolako asmorik. Ekarpen txiki bat egin nahi nuen, ate bat ireki, eta kito. Arbolan adaska asko utzi nahi nituen, eta hor izan da kezka, arbola behar bezala kimatzeko. Azken batean, istorio bakoitzak kontaketa bat baino gehiago ditu. Nik nirea aukeratu dut.



Ba al daukazu beste libururen baterako ideia buruan?



Beti badabil zeozer buruan bueltaka. Baina oraintxe bertan ez nago idazteko momentuan. Atsedena behar nuen eta atsedena luzatzen ari zait, presarik gabe.


Prosarako? Ala poesiara bueltatuko zara?

Ez, ez, ez. Ez dut neure burua poesian aurkitzen. Maitasun-gorrito harreman bat daukat poesiarekin. Bai nirearekin bai besteenarekin. Boladak izango dira horiek ere. Ikusiko dugu.

Motxilan eskolako apunteak eramateko adin-
nean, apenas nerabea zela, bekokia garauz
betea zeukala hasi zen Harkaitz Cano idaz-
ten, lagunak futboleko ari zirela, gaztetasunaren
existentzia arin eta kritikoa. Amatek prestatutako
hamaitakoa izango zuen akaso Asier Serrano, Gari
Berasaluze, Xabier Gantzarain eta beste hainbat
idazle aurreratuekin Lubaki banda sortu zuenean.
Lehen zigarroak pipatu eta eskola kaierari erazutako
orrietan poemak zirriborrotzen hasi ziren, gazteta-
sunaren eta munduaren kontra, behar baino lehen
handitzeko zeregin nekosoan. Garaiko argazki zuri-
beltzeak ikusita, batek esango luke ez ote zen
hura guztia pittin bat posea, baina Harkaitz Cano-
ren bibliografiari so egin besterik ez dago, orduko
hura oso serioa, are, larriki serioa zela egiaztatzen.
Ordutik hona, hemezortzi liburu eman ditu argitara
lasartearrak, eta bera da, alde handiz gainera, bere
belaunaldiko idazle oparoena. Poemak, narrazioak,
komikiak, artikulak, gogoetak, poema hibridoak,
kronikak, nobelak... denetik idatzi du Canok, eta
badirudi ia konpultsiboa dela, obsesiboa, munduaren
ertzak azaltzeko beharra. Begiak zabalik eta arkatza
zorrotuta dabil Harkaitz munduan barrena, eta izaera
eklektiko eta *puntillista* horren emaitza diren
liburuak ezagutzen ditugu. Orain arte ezagutzen ez
genuena, ordea, liburuak liburu izan aurretiko
oharrak, zirriborroak eta marrazkiak ziren. Idazle
baten barne munduan galbaherik gabe sartzeko
objektu bitxi, oparo eta primitiboak. Orrietan horien
guztien lagin bat aurkituko duzue.







ITU BANDA


**“ IDAZTERA ETORRI GARA, ARGITARATZERA
ETORRI GARA, KRITIKATZERA ETORRI GARA,
IKASTERA ETORRI GARA”.**

Testua: Leire Palacios

Hiru lagunek erein zuten hazia. Euren izen-abizenak ezkutatu eta ITU Bandak babestuta egin zuten salto plazara. Hamaika modutan itzulbiratu zuten hitza eta beste hainbestetan irakurleoi helarazi; paperean zein digitalean fanzinea argitaratu zuten, *Obabako testiguak* irratsaioan parte hartu zuten, eta “Utzi hitzak neurtzeari eta egin oka!” bezalako mezuekin paretekin hitz egitea posible dela irakatsi ziguten. Haatik, ITU Banda ez da sekula talde itxia izan, are gehiago, urteekin kolaboratzaile sarearen hariak luzatu eta mihisea etengabe ehuntzen jarraitzen dute. Orain, zortzi lagunek osatzen dute taldea: Peru Iparagirrek, Mikele Landak, Paul Beitiak, Martin Bidaurrek, Itziar Ugartek, Alazne Arrutik, Garazi Mugarzak, Maialen Akizuk eta Jon Gurrutxagak. Eako Poesia Egunetan oholtzaratu ziren estreinakoz *Ituskizuna* aurkezteko. ITU bandari gorputza jartzeko. Lau haizetara oihukatu zuten badatozela. Ahoko zuloan hitzok irmoki jartzera zerk mugitzen dituen azalduko digute, euren estiloari jarraiki: elkarrekin eta aho batez.







Zertara etorri zarete?

Agian ez gara oraindik etorri baina bagatoz. Etorri bagara geratzeko etorri gara, edo geratzeko asmoz. Noiz arte ez dakigun arren irauten dugun artean literatura egiteko asmoz. Idaztera etorri gara, argitaratzera etorri gara, kritikatzera etorri gara, ikastera etorri gara.

Banda bat zaretela diozue. Banda definitzeak euskal literaturan duen pisuarekin.

ITU izena berez laburra delako eta, hain zuzen ere, banda definitzeak dakarren kargarengatik hartu genuen izena. Harropuzkeria dirudi (eta agian hala da). Banda autoizendatzean geure buruari zilegitasuna eman genion, aurrera egiteko, beldurrak uxatzeko eta aldi berean literaturza-learen gogoan zerbait mugitu asmoz.

ITU. Hiru letradun izena hiru kide zituen bandarentzat

Aurretik, mantso baina irakiten ari zen ideia zen literatur talde (edo hurbil zitekeen zerbait) sortzearena. Negua igarota, maiatzean bota zion lagun batek besteari bala definitiboa, eta hastea bera nahikoa izan zen aurrez hutsa zenak proiektu forma har zezan. Bi izanagatik bi bider pentsatu gabe, sekulako ilusioa piztu zigun zeozer geneukan esku artean: geurea zen zerbait, geuk sortua plazaratzeko aukera emango ziguna. Ondoren etorriko ziren, hamarnaka whatsapp mezu eta taldera hirugarren bat gehitu ostean, mahai-inguruan eginiko bilera ugariak, gure testuen elkarbanatzeak, taldekideen arteko harremanen sendotzea eta horren guztiaren eta gehiagoren emaitza zen lehendabiziko fanzinea. Izenarena ere (miresten genituen gure aurreko literatur taldeek erakusten zigutenez) garrantzi handiko kontua zen, eta buruan geneukan etengabe, gutariko batek liburu batean "itu" hitza topatu eta geuretzat hartu genuen arte.

Ezkutatuta heldu zineten, baina ez ordea ezkutuan. ITU paretetan

irakur zitekeen.

Lehen fanzinea argitaratzeko orduan erabaki genuen gure benetako izen-abizenak gordetzea, anonimotasunari heldu genion. Garai hartan berez irten zitzaigun, baina orain eman ditzakegu zenbait argudio koherente: gazteak ginen, eta ez genuen jendeak ITU fanzinean nork idazten zuen jakitea nahi. Bestalde, literaturaren alderdi kolektiboari heldu eta autorearekin zuzenean lotu ezin zirenez testuak ITU Bandarenak ziren, ez batarenak edo bestearenak. Anonimotasunak nahi genuena esateko lasaitasuna ere ematen zigun, lotsagabetasuna (-keria, esango du zenbaitek) zilegitzen zigun nolabait. Paradoxikoki geure buruak plazan ezagutarazteko erabili genituen maskarak.

Obabako testiguak irratsaioan ere hasi ginen kolaboratzen, eta fanzineak argitaratzen jarraitu genuen (guztira lau) Banda handitzen joan zen ahala. Azken urtean fanzinerik argitaratu ez dugun arren ez gara geldirik egon, bildu gara eta Bandaren tamaina ia hirukoiztu da (horrela esanda pila bat garela dirudi). Beste modu batzuetan hautsi dugu gure isiltasuna, 2014ko Durangoko Azoka egunetan hormetan azaldu ziren idatzi batzuk kasu. Eako Poesia Egunetan taularatu genuen *Ituskizuna*-ren prestaketan ere aritu gara buru-belarri.

Paretetan eta paperetan. Nola josi zenuten fanzinea?

Fanzinean bileretan elkartzen ginenon eta gaur egun bandako partaide aktibo bihurtu diren kolaboratzaileen testuak argitaratzen genituen. Fanzine bakoitzaren amaieran ere gonbidatzen genuen edozein irakurle, bere lanak bidaltzera, geuk argitaratuko genizkiola-eta. Hori ere gure taldearen printzipio nagusi bat izan da, gazte literaturzaleek abaroa aurkituko zuten topagunea izan nahi genuen, argitaratzeko aukerarik ez zeukatei ahotsa eman. Fanzinea bera ahal bezala maketatu eta inprimatzen genuen. Eta ahal genuen bezala banatu, Iruñean, Donostian eta Zarautzen, besteak beste; 2013ko Durangoko Azokara fanzinearen



hirugarren alea ere ailegatu zen.

Zergatik utzi zenioten argitaratzeari?

Hasierako hirurok elkarrengandik gertu bizi baginen ere, garaian fanzineko kolaboratzaile gehienak ez ziren hain gertu bizi eta biltzea oso zaila egiten zitzaigun. Dinamika bat hartua genuen eta indarturik aurrera egiteko apurtu behar genuen. *Obabako testiguak* irratsaioa amaitu zen, gutako batzuk unibertsitateko ikasketekin hasi ziren... Fanzinea argitaratzeari utzi genion eta banda berregituratu genuen, urte hartan zehar gurekin lanean ibili ziren lagunak ere parte aktibo egiteko.

Berriz ere helduko al diozue?

Gure asmoa ez da fanzineari berriro heltzea, zerbait berria egitea baizik. Guretzat berria, behintzat. Benetako aldizkari bat egin nahi dugu. Zerbait konbentzionalagoa, gaur egungo literatur-sisteman (gutxi bada ere) eragina izan nahi duena.

Nolakoa izango da?

Ez dugu gehiegi aurreratu nahi oraindik, guk geuk ere ez baitakigu (orain, galderei erantzuten ari garen momentuan) nolakoa izango den bukatutakoan.

Hausturatik jaio nahi duzue. Deserosotasunetik, agian: zerekin apurtu nahi duzue?

Jaiotzekotan hausturatik izan behar da. Deserosotasuna gurea da, egunero bizi dugu, egunero bizi gaitu. Horregatik egiten dugu egiten ari garena, horregatik gatoz. Gazte literaturzaleok ditugun arazoan artean badugu nagusi bat: Gaur egungo literatur sisteman ez daukagu espaziorik. Eta fanzine batekin ezin dugu espazio hori bete. Zerbait handiagoa behar dugu. Guretzat gauzak aldatuko dituen zerbait.

Zer igartzen duzue faltan?

Orokorrean, gazte kulturazale eta literaturzaleon arteko komunikazioa eta koordinazioa falta da, beste gauza batzuen artean. Agian beti izan da horrela eta horrela izaten jarraituko du, baina hori erasotu nahi genuke *ITU*lariok, geure buruak eta geure lanak azaleratu gura ditugu, besteak beste, gainontzeko gazteak ere berdina egitera bultzatu asmoz. Gai bagara taldetan elkartu eta geure proiektuak sortzeko eta taldeon artean hitz egiteko, eszenatoki berri bat agertuko zaigu gure aurrean agian, non gu ere egon gaitezkeen erdigunean.

Zeintzuk dira ITU bandaren influentziak?

Banda gisa, Pott Banda, Susa, Ustela, Vladimir, eta hamarna proiektu antzeko. Lubaki Bandaren Susa aldizkariaren lehen manifestu hura ere zenbaitetan irakurri genuen geurea izkiriari aurretik! Bandakideak banaka hartuz gero, ordea, bakoitzak baditu bere iturriak, estiloak, gustuak, normala den bezala. Zaila da denak biltzea eta has gintezke zerrendatzen baina ez genuke inoiz bukatuko. Oso aberasgarritzat jotzen dugu hori.

Hausturak elikatutako *Ituskizuna*-rekin gorputzak taularatu zenituz ten. Gorputzarekin edo gorputzaren gainetik dago ITU?

Uztailean plazaratu genuen *Ituskizuna*: poesia, antzerkia, dantza, ikus entzunezkoak eta beste biltzen dituen ikuskizuna, ideia lehenagotik bagenuen arren. Paperetik, pantailatik taulara salto egin genuen eta balio izan digu Banda gisa berrindartzeko, elkarrekin denbora gehiago eman dugu eta proiektu komun batean lan egiteak on egin digu.

Zeintzuk dira ITUren etorkizunerako planak?

Urtearen amaierarako lehen aipatu dugun literatur-albizkari berria aurkeztu nahiko genuke eta posible da beste erreizitaldi batzuk ere eskaintzea. Biltzen jarraitzen dugu eta hori da guretzat garrantzitsua, espazioa bizirik mantentzea, eta, nahi bada, hazten jarraitzea.

SAMANTA SCHWEBLIN

“ARRAROA DEN GUZTIAREN GAINEAN
DAUKAT JARRITA ARRETA”

Testua: Eider Rodriguez

Argazki saioa egiteko hitzordua Donostiako hotel batean egin dugu. Hegaldia atzerapenarekin heldu da baina Samanta Schweblin (Buenos Aires, 1978) ez dago larriturik ordu erdiko berantarekin iritsi arren. Logelara igo da eta azal berriturik jaitsi da ordu laurden geroago. Aurretik egun luzea daukagun arren, poltsarik gabe jaitsi da, eskuak patriketan. Idazten dituen errelatoen antzera bere aurpegiak esaten duena baino gehiago kontatzen du: begiratzen diotak ez du aski ikusten duenarekin eta osatzera joko du, gehiagoren bila hasiko da Schweblinen ahotsaren tolesduretan, ilajea lotzeko maneran, begi marroi handien mugimendu bizian. Konturatzerako harrapatuta dago, ezin begiratzeari utzi. Fisikoki Berlinen bizi den arren Argentinan dago Schweblin-en jokaleku bital eta narratiboa. Bihotz-zabal eta xehe-xehe erantzun ditu gure galderak.



Egia al da literaturarekiko zaletasuna aitonairengandik jaso zenuela?

Aitona familiarengandik urrunduta zegoen, ez zen inoiz agertzen, eta nik 7-8 urte bete nituenean amari deitu zion, eta esan zion "Samanta-rekin pasa nahi dut asteburua". Gogoan dut nire aitona zen gizon hark italiar itxurako sandalia irekiak zeramatzala, azpitik galtzerdi gorriak, eta "ene, hau lotsa!", pentsatu nuela. Eskutik heldu eta etxetik aldendu bezain pronto esan zidan: "Gauza bat argitu nahi dizut. Hau ez da aitona-rekin egingo duzun paseotxo bat. Hau artista entrenamendu bat da". Gizon haren agerpenarekin hiri erdigunera bakarrik joaten ikasi nuen, bakarrik bidaiatzearen hastapenak izan ziren. Gauza asko gertatu ziren aitona-rentorrekarekin. Berak akuaforte eta grabatu tailerra zuen San Telmo auzoan, eta nik tailerra lanerako prestatzen laguntzen nion... Bitartean, berak, Alfonsina Storni irakurtzen zidan, Julio Cortazarren liburuak oparitzen zizkidan, hiritik paseatzera eramaten ninduen, eta, finean, artistaren entrenamendua zen hartan trebatzen ninduen: txartela ordaindu gabe bidaiatu, jateketan ez jan (etxetik jatekoren batekin irten eta plazan jan)... Berak artistaren ikuspegi erromantikoa zuen: sufritu egin behar duela, gutxi jan eta asko bidaiatu. Zoragarria izan zen. Uste dut nire trebakuntzan arrasto handia utzi zuela.

Irakurri dut zure aitona-rentailer parean Lito Vitalek entseatzen zuela...

Bai, hala da. Garai hartan artistaz betea zegoen auzoa. Lito Vitalek larunbatero eta igandero entseatzen zuen leiho guztiak zabalik... Nik uste garai hartako leziarik garrantzitsuena seriotasun eta konpromiso handiz artea egiten zen jende helduz inguratuta egotea izan zela. Ebakuntza gela batean geundela zirudien, hogeitaz lagun erabateko isiltasunean lanari emanda... ez zen zortzi urterekin arteari buruz izaten den plastilinari loturiko ikuspegia!

Duela hiru urte bizi zara Berlinen eta literatura tailerrak gidatzen dituzu, espainolez.

Gobernu alemaniarrek emandako beka eder batekin iritsi nintzen Berlinera. Beka hau ematen duen instituzioaren bulego batean afixa bat dago Witold Gombrowicz-en aipu honekin: "Beka honek bizitza izorratu zidan". Eta hala da. Urtebetez soldata ematen dizute idatz dezazun, eta trukean ez duzu haien zati ezer idatz edo ekoiztu behar. Idazten dugunean xaloki pentsatu ohi dugu: "Astea bi ordu baino ez ditut idazteko, gehiago baneuzka...", baina gezurra da. Ni ohartu nintzen sormenerako energia kopuru jakin bat dudala egun bakoitzeko, eta behin agortuta, alferrik da. Zerbait gehiago egin nezakeela bururatu zitzaidan orduan. Urteak ziren Buenos Airesen literatura tailerrak gidatzen nituela, Argentinan ohikoa da, eta ni neu bertan ikasitakoa naiz. Baina ez nuen sekula pentsatu Berlinen literatur tailerretatik bizi nintzekeneik.

Beraz literaturatik bizi zara?

Bai, jakina. Berlingo Cervantesen eta neure etxean ematen ditut tailerrak. Nahikoa saio xelebreak izan ohi dira: mahai berean kolonbiar bat, mexikar bat, espainol bat, argentinarr bat... egoten dira eserita.

Eta zer moduzkoa da Alemanian bizitzea espainolez idazten duen batentzat?

Oso ona, Berlinen nagoenetik nire mundua ikaragarri murriztu baita. Oso gutxi egiten dut alemanez, lagun alemaniar gutxi ditut, Berlinen mugitzen naizen mundua artisten mundua da batez ere, baina haietarik kasik inork ez du idazten, beraz espainolez idaztea nire asmakizuna dela dirudi han. Lehen zena baino intimoagoa da orain, hain intimoa da non kontatzeko eta komunikatzeko gogoia oraindik eta gehiago hazi baita, oso emankor izatera bultzatzen nauen kontraenergia moduko bat

bilakatu da. Ez dago Buenos Airesen zegoen mundu literario oparoa. Faltan hartzen dut baina era berean on egiten dit ez egoteak, idazle izaerak badu eta arrotasunetik zerbait.


Nolakoa da zure egun bat? Zein da jarraitzen duzun errutina? Diziplinatua, kaotikoa ala aldizkakoa zara?

Garai batzuetan diziplinatua naiz. Gustatzen zait diziplina, baina segituan aspertzen naiz, nahiz eta ez diodan nire buruari kaosean erortzen uzten, aspertzen naizenean diziplina modu berri bat asmatzen baitut. Beraz bi-hiru hilabete irauten duten errutinak dauzkat. Iberoamerikanara idaztera joatea atsegin dut, handik 30 kuadrara bizi naiz, Europako liburutegirik handienetakoa da, eta bertan Argentinan lortuko ez nituzkeen Argentinako liburuak lortzen ditut. Goizetan han idaztea gustuko dut. Gertatzen zaidana da mundu errealekin harremanetan







“Pájaros en la boca”
SAMANTA Schweblin
Emecé, 2010



“El núcleo del disturbio”
SAMANTA Schweblin
Booket, 2011



“Distancia de rescate”
SAMANTA Schweblin
Random House, 2015



“Siete casas vacías”
SAMANTA Schweblin
Páginas de espuma, 2015

sartu orduko, autoa berriro hondatu zaiola dioen amaren mail batekin, adibidez, edo telefono dei batekin, mundu narratiboak indarra galtzen duela. Beraz nahaspila hori gertatu aurretik idaztea ezinbestekoa zait, ideiak oraindik guztiz osatu gabe daudenean, horretarako oso goiz jaitzen naiz eta posible bada oraindik guztiz esnatu gabe nagoela hasten naiz idazten, informazio zurrunbiloa etorri aurretik.

Pintura ere maite duzula entzun dut, izan ere lizentziatu zinenean diseinu estudio bat sortu zenuen, eta esku hartze handia izan ohi duzu zure liburuen azaletan.

Ez dut margotzen, baina bai, formazioari dagokionez, Irudia eta soinua ikasi dut eta hala diseinuari zegozkion irakasgaiak ere banituen. 2001. ean lizentziatu nintzen, Argentinako azken krisi handian, Argentinako sei zinema ekoiztetxetatik bost behea jota zeudenean, beraz ez nuen lana bilatzeko lanik hartu. Garai hartan neska bat ezagutu nuen, oso ona zen programazio kontuetan, eta berak bazekien zer egin bilaketa batean web orrialde jakin bat lehenengo postuan ager zedin. Esan zidan: “Etor zaitez nire etxera bihar eta erakutsiko dizut nola egin, eta ondoren enpresa bat sortu!”. Erokeria zen, ordenagailurik ere ez neukan orduan, pentsa! Baina ez nuen lanik, karrera bukatu berritan nengoen eta kasu egin nion, bere etxera joan nintzen eta web orrialde bat lehenengo postuan ager zedin egin beharreko hamar gauzak zein ziren esan zidan. Oharrak hartu nituen eta esan nion: “Baina nik hau badakit, hau interneten dago!”. Eta berak erantzun zidan: “Bai, badakit interneten dagoela baina ehungarren postuan azaltzearen eta lehenengo postuan azaltzearen artean dagoen alde gauzak ongi egitearen eta perfektu egitearen artean dagoen alde bera da. Hamar puntu horiei kasu egin, zehatz-meatz, eta ongi joango zaizu”. Eta bai, ongi atera zitzaidan: Argentinako gobernuarentzat egin nuen lan, atzerrirako, lau enplegatu izan nituen, guztia nire etxeko egongelatik irten gabe. Hain juxtu enpresa ongiegi joateagatik egiten nuen lan egunean hamaika orduz. 2008an nire lehenengo beka eman zidaten, Mexikon, eta erabaki bat hartu behar izan nuen, enpresa ixtearena.

Benetan harrigarria da, eta generoa gutxietsi gabe, ipuinak baino idatzi ez dituen norbait hain urruti iritsi izana. Hamabost hizkuntzatan irakur zaitzakegu, kritika ezin hobeak lortu dituzu, bekak... Hainbesteko arrakastak ez al dizu beldurrik ematen?

Aurreiritziak daude horren inguruan: gogoan dut idazten hasi orduko

nobela noiz idatzi behar nuen hasi zitzaizkidala galdezka, ipuinak idaztea entrenamendu gisako bat balitz bezala, nahiz eta bi mundu zeharo ezberdin izan. Uste dut ipuingile izateak arlo askotan lagundu didala: ipuin jaialdi bat dagoen bakoitzean gonbidatu egiten naute, adibidez, edota, kazetariei dagokienez, agian ez dute 800 orrialdeko liburu bat irakurtzeko astirik baina ipuin liburu batekin ezberdina da, ipuin bat irakurtzen dute, eta gustatuz gero, hurrena eta hurrena, eta elkarriketara beste grina batekin heltzen dira. Edota antologiatan sartzeko, adibidez, antologiek ez diote nobelagileari mesede egiten, ipuingile batentzat ordea aurkezpen gutun bikaina dira.

Baina nobela idazteko presioa sentitu duzu.

Bai, bai.

Zure estiloari buruz galdetu nahi nizun. Nahiz eta zu oso zalea ez izan izenondo ugari aurki daitezke zure obra deskribatzerako orduan: artetegagarria, arraroa, eraginkorra, neurritsu, ezohikoa, onirikoa, larria... Zein litzateke zure autodefinizioa?

Agian nire irakurgaien bidez azal nezake: nik bi maitemin izan nituen, lehenengo Latinoamerikako literaturarekin maitemindu nintzen, bere iluntasunagatik, nahasmenagatik, hain kargatua beti, hain sakona, oso bizia zen zerbait zuen Latinoamerikako literaturak niretzat; eta ondoren Ipar Amerikako literaturak itsutu ninduen, uste dut honekin ikasi nuela idazten, zeina aurrekoaren kontrakoa baita: kontrolatzailea, perfekzionista, hizkuntzaren neurri eta zehaztasun ikaragarria dauka... Bi mundu horien erdibidean nago ni: arraroaren, magikoaren, ilunaren, azaldu ezin denaren mundu hori interesatzen zait, baina nire narratzeko manera oso iparramerikarra da, guztia aldeztu aurretik pentsatua egotea gustatzen zait, bai idazten dudanean eta baita irakurtzen dudanean ere, ez dagoela soberako hitzik sentitzea.

Non aurkitu ohi duzu zure kontakizunen ernamuina? Solasaldi, oroitzen, irudietan...?

Horietan guztietan aurki daiteke. Esan ohi dute idazleok oso distraituak garela, baina nik ez dut uste hori hala denik, baizik eta idazten dugunok arreta oso sakabanatuta izan ohi dugula, eta edozein unetan geure buruari esan diezaiokegu: “Hau ez litzateke txarra izango errelato baterako”. Adibidez “Mis padres y mis hijos” ipuina aleman ariketa bat egiten ari nintzela otu zitzaidan. Ariketak honela zioen: “Non daude zure gurasoen jantziak?”. Zoragarria da! Ariketa hau asmatu duena jenio bat da! Lau



"Idazten dudanean planifikatu egiten dut istorioaren zein zati geldituko da paperean soilik eta zein zati eraikiko da irakurlearen buruan."

pertsonaia dituzu galdera ere baden esaldi bakarrean! Tipo ho-rrek ez luke alemana ikasteko testu liburuak egiten aritu behar. Arraroa den guztiaren gainean daukat jarrita arreta. Zerbait ez denean ongi ixten, istorio bat aurki dezakezun seinale.

Badago zure obran errepikatzen den gai bat, ebatzi gabeko amatasunarena dei genezakeena. "Conserva" ipuinean, adibidez, emakumezko bat ernari gelditu izanaz damutzen da eta alderantzizko prozesu bati ekiten dio ernaldutako obulua okaztatu arte. Edo nire errelato kuttunetako bat, "En la estepa": seme-alabak izan nahi dituen bikotea gauez mendiko arropen eta eskopetez hornitu eta basora irteten da ez dakigu zeren bila. *Distancia de rescate* izenburuak berak ere aipamen egiten dio ama batek haurrarekiko mantendu beharreko distantziari. Gai honi buruz zerbait gehiago esaterik bai?

Oso nirea den zerbaitekin lotzen dela esango nuke. 37 urte ditut eta emakumezkoek adin honetan erabaki behar dute ama izan nahi duten ala ez, eta ni amatasunaren kontuak ez nau gehiegi betetzen, nahiz eta asko pentsatzen dudan honen inguruan, liluragarria zaidan gaia baita. Izan ere, gizakiaren bizitzan genero fantastikoarekin lotura zuzena duen instantziarik badago hori amatasunarena da, beste gizaki bat norberaren gorputz barrutik irtetea! Eta ez bakarrik amatasunarena, 37 urte dira alaba naizela, eta hor badago oso interesgarria den hari bat, guraso eta seme-alaben artekoa. Nire belaunaldian gai honen inguruko eleberririk eta saiakera ugari dago, gainera. Lina Meruane txiletarrak adibidez oso ona den liburu dauka, "Contra los hijos" du izenburu.

Zure beste lorpen handienetako bat da zure errelatoek duten erritmoa, tentsioa eta kadentzia... Erritmorako edota musikarako dohain bereziren bat duzu?

Badakizu?, nik ez dut erritmoarekin lotzen. Badu Carverrek honela hasten den narrazio bat: "Eskurik gabeko gizon batek atea jo zidan, nire etxearen argazki bat saltzeko". Sekulakoa da! Zein da gizonezko hori? Zergatik jo dit atea? Nola jo dit atea eskurik ez badu? Zergatik atera du nire etxearen argazkia? Zergatik saldu nahi dit? Zer ari nintzen egiten berak argazkia ateratzen zuen bitartean? Argazkian agertuko naiz edo etxea soilik agertuko da? Hau guztia zehaztasun handiz dago idatzia irakurlearen buruan, horregatik pizten du interesa edo barregura, horregatik harrapatzen gaitu, horregatik behar dugu esaldi horretan esku hartu. Idazten dudanean planifikatu egiten dut istorioaren zein zati geldituko da paperean soilik eta zein zati eraikiko da irakurlearen buruan. Eta horrek denbora eskatzen du, tentsioa sortzen duen bi parteren arteko jolasa da, eta ez naiz thriller baten tentsioaz ari baizik eta

irakurtzeari ezin uzteak sortzen duen tentsioaz. Hori da niri gustatzen zaidana. Liburutegi batean liburu bat zabaldu eta ezin askatu duzunean. Eskola iparramerikarrak asko daki honi buruz.

***Distancia de rescate*-n amatasunaren gaiaz gain glifosato izeneko pestizidaren gaia dago...**

Bai, Monsantoen produktu beldurgarri bat da, argentinarrak haserretuta gauzkan produktu bat, soja soroak fumigatzeko erabiltzen dutena eta jendea akabatzen ari dena. Glifosatoarekin kontaktu zuzena izanez gero 48 ordutan hilda zaude, edo ez, nork artatzen zaituen. Baina glifosatoa erabiltzen den landa eremuko mediku askok enpresa hauentzat egiten dute lan, eta hala, ez dute jakinarazten glifosatoak minbizia eragiten duela, haurdunaldien %80 berezko abortuan amaitzen dela... Beraz jendeak ezin du defendatu ezin baitu gertatzen ari dena datuekin frogatu. Hortaz, liburu honetan badira literatura fantastikoarekin lotzen diren arren gaur egun Argentinako landa eremuan gertatzen ari diren gauzak, Argentinako 1200 biztanleko herri batean malformazioak dituzten 160 gaztetxotik gora daude, adibidez.

Liburu honekin soziala edo politikoa denerantz lerratu zarela esango zenuke? Monsantoen jokabidea salatu nahi zenuen edo literaturaren mesedetan erabili duzun gaia da?

Hiritar gisa salaketa egin nahi nuen, baina gezurra litzateke esatea idazle gisa nobela hau gai honi tiraka hasi nuenik, nire asmoa Amanda-ren eta Ninaren istorioa kontatzea zen, erreskate distantziarena... eta gero ohartu nintzen glifosatoa istorioaren hari eroalea izan zitekeela. Aipatzen duzun dilema hori izan nuen, bai, are liburuaren lehen beriotako batean Monsanto eta glifosatoak hitz egiten nuen, baina gero ohartu nintzen liburuak ez zuela halakorik behar, nahiz eta nik hura kontatzeko beharra nuen... Eta hala, Monsanto eta glifosatoa liburutik atera nituen eta kontrazalean aipatu nituen, elkarriketetan... liburu inguratzen duen horretan. Literaturak ezin du politikoa izan, ezin du bigarren asmorik eduki. Liburu batek istorio bat kontatu behar du eta beste guztia soberan dauka.

Hiru liburu gomendatzeko eskatu nahi dizut: klasiko bat, garaikide bat eta gomendatzea pudorea eman dezakeen bat.

Klasikoa *Crimen y castigo* (Krimena eta zigorra); garaikidea, Jesse Ball-en *Toque de queda* (Etixeratze-agindua) eta izendaezinari dagokionez guztiontzat izendaezin izan daitekeen bat aipatuko dut: Argentinan behintzat denek ukatzen dute Stephen King baina bere *Mientras escribo* (Idazten dudana bitartean) saiakera idazle guztien liburutegietan dago; erdi ezkutu, idazle askoren liburutegietan ikusi dut!

KEPA ALTONAGA

**"LEIZARRAGA ETA KLASIKOEN
MAILEGU ZAHARRAK, URREZKO PIPITAK
DIRA GURETZAT"**

Testua: Edorta Jimenez

Bultzi leihotik kanpora begira goaz. Nora? Menditik mundura, dio batek. Munduko zein lekura?, beste batek. Back to Leizarraga, hurrengoak. Zertara eta euskara batuaren bigarren jaiotzara, erantsi du. Hara. Hain miragarria ote da bada leku hori, Leizarraga? Harantz abiatzeko motiboen agiri edo aldarrikapen antzekoa den liburuxka eskurik esku baitabil. Kepa Altonaga du sinatzaile eta horren zortziehun ale zabaldu ziren apirilean. Irailean beste edizio bat egin behar izan dute. Behin edo behin baino ez dira izaten horrelakoak bultzi honetan. Bultzian egia, beste batzuek *Ulices* irakurtzen doaz. Gabriel Arestik, Leizarragaren eredua abiaburu, euskaraz amestu zuen liburua. *Back to Leizarraga*, beraz. Norabide horretara joko ote du, hurrengo bultziak? Galderak dira. Kepa Altonoga (Loiu, 1958), irakaslea lanbidez, zientziei eta batik bat biologiari loturiko zenbait libururen egilea da. Hortxe dira *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (1998, Elhuyar), *Armand David, pandaren aita* (2001, Elhuyar) eta *Darwin geurean* (2010, Pamiela), eta *Etxepare, Aldundeko medikua* (2006, Euskaltzaindia / EHUZ), biografia baino harago doan liburua. Irakaskuntzaren arloan *Zoologia orokorra* (2005, UEU) eman digu. Geroari ateak zabaltzeko iraganetik ikasi behar dugula defenditzen duen *Back to Leizarraga* argitaratu du 2015eko honetan. Arrazoitzeko era dotore eta taxu klasikokoan idatzia, bideari betean ekiteko gonbidapena da.





Back to Leizarraga titulua laburra eta erraz gogoratzekoa. Horren motiboa jakin gabe *snob* kutsua dario. Beraz, jakin daiteke motiboa ala nahiago duzu ez esan?

Aspaldian nerabilen buruan. Urteak dira Arestiren gainean berbetan Mikel A. lagunarekin, hark salatu zidala *Hiztegi tipia*-ren aitzinsolasa, eta bertako "Back to Leizarraga". Direktora da, argia da, indartsua: Arestiren sena erakusten du, literaturarako zuen gaitasuna eta bista zorrotza. Atoan pentsatu nuen banuela titulua, *Back to Leizarraga*, artean proiektua besterik ez zen gogoeta-multzo batentzat. Izan ere, bere laburrean *Back to Leizarraga* horrek ederto biltzen du liburuak barruan dakarrena (Leizarragarengana atzera ere), eta bestalde, aitormen bat da, aitormen inplizitua Gabriel Arestirentzako. Bestalde, egia da, hainbeste Bilbao Exhibition Centre eta Basque Culinary Center-en ondoan, baten bati Back to Leizarraga *snob* eta babalare begitanduko zaio: ez nuke horrelakorik gurako.

Erantzunaren harira hain zuzen ere, autobiografia izan duzu saiakera honetan euskarri. Landare igokariek argia bezala, zeure bizitzako pasarteak izan dituzu diskurtsoaren euskarri. Esan beharrekoak mingarri ere suerta zitezkeelako ala halaxe nahi zenuelako idatzi, argiaren (edertasunaren) bila?

Inor ez da jakitun jaio, eta, beti, autobiografiak zerikusi handia edukitzen du une jakin bateko konbikzioekaz. Halaxe suertatu da saiakera honegare, jakina. Bai, liburuaren ideia eta planteamenduen atzetik, kronologia pertsonal bat dago modu nahikoa lausoan, hainbat jazoera eta pasadizo daude, norberaren kolkoan egosi dena eta eduki duen garapena erakusten digutenak zelan edo halan: umotzea zelan gertatu den. Horrek, nire ustez, pilpila bat damaio testuari, bizitasun bat. Errealago bihurtzen du, egiazko, hurbilagoko egiten du diskurtsoa, eta esango nuke erraztu egiten duela konplizitatea irakurlearekin, zeren igarri egingo baitu bihotza ere jarri duzula testuan, gogoeta izan arren.

Dena esateko, Stephen Jay Goulden eta David Quammenen entsegu ederretan aurkitu dut egiteko modu hori, eta ia-ia zeu konturatu barik inplikatzeko zaitu haien testuetan. Ohartu orduko partaide egiten zara idatzizkoan.

Stephen Jay Gould eta David Quammen aipatu dituzu, eta Darwin ere aipatu behar izango genuke, liburuan giltzarria delako eta liburuak dakarren kezka nagusiaren harira: historikoki ez gara gai izan, zientzian, nazioarteko komunitateak erabiltzen duen hiztegi zehatza geure egiteko. Beti ibili izan gara hala edo holako garbizaletasun baten bila. Eta horrek zelulari zein izen eman edo kastitatea zelan aipatu ez jakitera, txorien izenak eurak ere nahastera eraman gaitzake. Eta Julio Cortazarrek asmatu zuen gigliko hizkuntzaren antzeko batez jardutera, zientzien arloan bederen.

Zer esanik ez, Darwin ere aipatu beharko nuke eta bai deitura horrek atzean dakarren guztia. Baina, abiapuntu kronologikoan eta, halaber, liburuaren hasieran bertan Lizardi dago, Lizardiren guraria eta kezka, hain zuzen gure hizkuntza larrekia noranahiko eta jakite-hegoek igoa bihurtzearena. Eta azpimarratu gura dut hori, ze, ezpabere pentsatu ahal da zientziaren prosa dela batez ere ni arduratuta naukana, berorren zehaztasuna. Egia da, alor horretakoa naiz eta hortik nator, Darwinen inguruko anekdota batzuk bildu ditut liburuan, baina aurkeztu dudak diagnostikoa orokorra da eta, nire ustez, baliagarria da bai fikziozko prosarako eta bai ere ez-fikziozko. Alegia, gigliko aurkituko duzu batean eta bestean.

Alde horretatik, oso esanguratsua da Xabier Amuriza diagnostiko ia berera iritsi zela bere kabuz. Begi-bistakoa da Amuriza eta biok zein bere planetan bizi garena: ba, hala eta guztiz ere, adostasunera ailegatu gara

"Amurizak aspaldi mahaigaineratu zigun gure hiztegi gintzaren "indefinizio etsigarria", "anbiguotasun gogaikarria", "ausarkeria suizida"."

bide oso desberdinetan zehar.

Xabier Amurizak, besteak beste, halako hitz-zerrenda batzuk argitaratu ditu gai honi buruzko bi liburuetan (*Euskara Batuaren bigarren jaiotza* eta *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*) berak beharrezkotzat jotzen dituen hitzen zerrendak ageri dira. Bestetik hortxe dugu Euskalterm Terminologia Banku Publikoa. Banku horretan adibidez Amurizak proposatzen duen "inhumano" hitzari ez diote krediturik ematen, eta zuk zeuk aipatzen dituzun "euskal komunitate zientifikoak erabiltzen dituen" milaka eta milaka hitz falta dira. Zer egin behar du komunitate horrek?


Urteak dira Plazido Muxikaren hiztegian *darwinkeria* topatu nuela bilatzen ari nintzen erdarazkoaren ordain gisara. Ez dut esango (edo bai!) traumatikoa izan zenik, baina, tira, sarri askotan gogoratzen dut orduko sorpresa, zeren behin eta berriro aurkitzen baititut horrelako harribitxiak egungo hiztegiaren ere. Ematen du oraindikarren bizi garena paradigma "plazido-muxikar"-ean, haren eremu grabitatoriotik urrundu ezinik.

Autura "inhumano" dakarzu, adjektibo erreferentzial hori ez dagoela gure hiztegi eta datu-bankuetan. Baliokide modura hiztegiok bihotz-gogor, anker, krudel, gizagabe, jasangaitz, jasanekin eta horrelakoak eskainiko dizkizute. Alabaina, erabiltzaileak badaki horiek guztiek ez dutela adierazten berak esan gura duena: egia da, hiztegiek proposatutakoak hurbil ibil daitezke, gutxi gorabehera bai, baina azken beltzean, ez. Orduan zer? Biotariko bat. Ala konformatu egiten zara hiztegiaren aurkitutakoarekin, nolabait plegatu egiten zara ortodoxiara –eta, kasu, giglikoaren bideetan barrena abiatzen zara!– ala transgresore bihurtuko zara tribuko tabuak hautsita, "inhumano" normal-normal erabiliz, eta "humano" beste horrenbeste.

Kontua da-ze adibide horretan pixkatxo bat sakonago arakatuz gero jakingo genukeela, gure hiztegi arruntetan jasota egon ez arren, "humano" jadanik Leizarragak erabili zuela, eta bai haren atzetik beste hainbat klasiko ("Orotariko"-an begiratu dut; bertan aurkituko dituzu halaber "humanoki", "humanokiro" eta "humanoro"). Ildo beretik, "inhumano" Joakin Lizarraga Elkanokoaren lau liburutan jaso da hogeitaka biderrez, "Orotariko"-ak hori islatu ez badu ere.

Hala ere, "joanak joan" pentsa dezake baten batek. Baina kontuz. Errealitatea temoso da esan ohi denez, eta, hiztegiak hiztegi, erabiltzaile errealek –prosa-egileek– humano eta inhumanora jo dute hiztegiak gorabehera. Horixe ikusi dut Egungo Testuen Corpusa (ETC) delakoan, zeina, bertan azalduta dagoenez, "21. mendeko ereduazko corpusa" baita eta "dena: 204,9 milioi testu-hitz" baitu, 2001/2011 tartean bilduak. Horko datuen arabera, "humano" 1132 biderrez agertu da, eta, bide batez esateko, hor daude ere alfabetikoki humanidade [7], "humanismo" [792], "humanista" [845], "humanistiko" [138], "humanitario" [1236], "humanitariotasun" [1], "humanitarismo" [22], "humanitarista" [14], "humanitate" [854], "humanizatu" [180], "humanizatzaile" [39], "humanizazio" [150], "humanoki" [20] eta "humanotasun" [4].

Baina, web orri horretan "inhumano" bilatu dudanean 45 agerraldi salatu dizkit. Eta gehiago jakin nahi dudala adibideetara jo eta hor topatu ditut transgresoreen izenak kronologikoki paratuta: Uxue Apaolaza, Mikel Asurmendi, Unai Elorriaga, Karlos Linazasoro, Xabier Amuriza,



"Back to Leizarraga"

Kepa Altonaga
Pamiela, 2015

Joxe Azurmendi, Ignazio Aiestaran, Iñigo Aranbarri, Pello Zabaleta, Luis Berrizbeitia, Jokin Urain, Bernardo Atxaga, Jon Urruxulegi, Jon Alonso, Jose Mari Pastor...

Nire ustez, arestiko izen horiek argi darakuste ez dela zabarkeria izan erabilera horien kausa. Aitzitik, argi darakuste gure hiztegien moztadea. Amurizak aspaldi baten mahaigaineratu zigun gure hiztegi gintzaren "indefinizio etsigarria", "anbiguotasun gogaikarria", "ausakeria suizida". Atea itxi zaie ustezko zabarkeria baten aitzakian, alfonbra azpian ezkutatuta gorde dira, konturatzeko Leizarraga eta klasikoen mailegu zaharrak, guretzat urrezko pipitak direla. Baztertu ez, kontrara, lehen opzio –eta askotan bakar– modura agertu beharko lirateke gure hiztegiaren. Eta gero, gure klasikoek etxekotutako urrezko hitzak erreskatatu eta ikusgarri bihurtu eta gero, edota aldi berean, orduan letorke Amurizak salatu 20 000 hitz komun txanda.

Idazleak transgresore, diozun legez. Ez gara ausartu joskera edo sintaxian transgresore izaten eta "zein" horren tribukoak erabiltzen. Soluzioa ez ote litzateke, horretan bederen, euskara-maila bi argi eta garbi bereiztea (Krutwig handiak proposatu zuen bereizketa baino "demokratikoagoa")?

Inoiz hegaldi domestiko eta hegaldi transozeanikoez mintzatu naiz erakusteko maila bi-edo desberdindu beharko genituzkeela diskurtsoaren arabera. Arestik azpimarratua da bikoiztasun posible hori, ingelesa eredu hartuta. Nolanahi ere, eskematikoegia da dikotomia hori, zurrunezia, gradazioa egoten baita ia edozein diskurtsotan, hau da, modulatu egiten da maila. Hein batean, gainera, gogoraz dezake Federiko Krutwigen planteamendu literarioaren elitismoa.

Nik neuk gurago izaten dut armairu betearen konparazioa, pentsatzea armairu beteak ditugula eta, kasuan kasu, gure idazlanetarako ondoen doitu diren bitartekoez baliatuko garela, bai anaforikoez eta beste. Armairu beteak hobetsita, esan gabe doa, armairu horiek baliabidez hornitu beharko dira, elikatu egin beharko dira: "zeina/baita", "zeinak/bait(it)u", "zeintzuak/baitira", "zeintzuek/bait(it)u(z)te", "zeinean/bait-", "zeintzuetan/bait-" eta enparauak irakatsi egin beharko dira ume-umetatik normaltasun osoz, eta horrelaxe opetsiko da prosarako eredu praktiko-kable bat, itxaron barik harik eta idazlea izan nahi duzula

deliberatu arte, idazle transgresorea izan arte.

Leizarraga aipatzen ari gara baina, Euskara Batuaren hastapenetan Mitxelena eta Villasantek Axularren eredua proposatu zuten. Azkenean ezta hori ere? Ez ote da gure Akademia, Aresti, Txillardegi, Villasante, Mitxelena eta "klasikozale" haiek urratutako bidean, atzera eta atzera doala? Susmagarriro baztertu -nik uste, noski- Iparraldean?

Nire ustez Akademiaren ardura nagusia batez ere linguistikoa izan da, eta da, ez literarioa. Hizkuntza-eredu bat diseinatzen aritu da –euskara batua–, eta bestelako kontu bat litzateke, gero, hizkuntza hori erabiliz zelako prosa garatu dugun. Hau da, orubea prestatu du eta apaindu, beharrezko tresneria eta materiala eskuratu digu, baina hortik aurrerakoa ez da haren egitekoa. Ez dakit zein neurritan lepora dakiokkeen zuk aipatu desbideratze hori.

Izatez, aspaldiko kontua da gure literatura klasikoarekin eduki dugun urruntzea, gutxienez ehun bat urtez luzatu dena: lehenago baten, den-denak estigmatizatuta mordoilozeak zirela-eta, eta oraintsuago elizkoiki eramanezinak direlakoan. Horren ondorioz, XX. mendean gauzatu den prosa zerikusi oso urrunekoa du idazle klasikoekin, dela lexikoari begira, dela sintaxiari. Hortik datorkigu, besteak beste, iparraldeko urruntasun literario hori.

Begi-bistakoa da, eta beraz ez dakit noraino komeni den azpimarratzea, klasikoek alagalako materialak eskaintzen dituztela gure armairurako.

Amurizaren liburu baten titulua datorkit behin eta berriro guzti honen harira: *Menditik mundura*. Ez ote da ez garelako oraindiko mundura iritsi? Pentsamendu eta zientzia modernoan mundura behinik behin?

Menditik mundura liburu maitagarria da niretzat, bertan plazaratu baitzuen Amurizak "Hidrogeno ahalguztiduna" izeneko poema. Neuk mugarritzat daukat 1977an argitara emandako poema hori, zeren berorretan aurkitu bainuen erabat eboluzionista bihurtu zaigula ohiko kosmogonia biblikoa, euskal letretan lehen aldiz: Hasieran hidrogenoa zen, eta hasiera hidrogenoa zen, eta hidrogenoak ez zuen hasierarik... *Menditik mundura*, bai. Konbentzitutako nago: euskaraz ere txonbo eginen dugu benetako mundura. Berandu baino lehenago, bai.

ERRAC- TUS


×

AUHENEN METRIKA OPAROA

Testua: Lander Garro

Erraiei buruzko ekintza poetikoa dei diezaiokegu *Errac-tus*-i, bere jatorrian baitaude Danele Sarriugarteren *Erraiak* eta Jule Goikoetxearen *Tractatus* liburuak, nobela lehena eta poema bilduma bigarrena, azken urte honetan biek jokatu eta taularatu dutena, Kattalin Miner aktibista feministarekin batera. Erraiei buruzkoa diogu, baina erraioletatik esan genezakeen, eta seguruen zuzenagoa litzateke, bi liburuetan oinarritutako ikuskizunak zerbait badauka horixe baita: erraiak. Erraiak mezuan: erradikala, feminista, matxinoa eta sentsuala; eta baita erraiak forman ere, zaplasteko baten gisakoa, bortitza eta asaldagarria. Goiburuan idatzi dugun bezala, auhen bat, izan daitekeena mundu patriarkal hiltzaile honen kontrako oihua, edota izan daitekeena plazerezko auhen bat. Biak ala biak auhen matxinoak, edonola ere, berdin baita matxinoa, dagoeneko, gauzak aldatu nahi izatea nahiz gorputzaz libreki gozatzea, dela sexu berekoekin edo dela nahi dugunarekin, inori azalpenak eman gabe, errudun sentitu gabe, eta epaituak izan gabe.

W: 54,765 mm
H: 34,093 mm



actatus magna



militarean



Ikuskizuna hastera doa. Ia emanaldi guztietan bezala, aretoa, berez antzerkirako aretoa ez dena, beteta dago. Hilabeteak daramatzate Danelek, Julek eta Kattalinekin ikuskizuna herriz herri taularatzen, eta beti errepikatzen da nolabaiteko arau hori: toki hitsetan ari dira, taberna zuloetan, gaztetxeetan, eta, hitz batean esanda, kamerinorik gabeko tokietan. Baina beti ari dira aretoaren txikitasuna txikiagotzen duen jendetza goseti batentzat. Gaurkoan bezala. Jendea dago leiho hegietan, jendea dago mahaietan jarrita, lurrean, korridorean. Eta ez dira gonbidapenarekin etorri. Etorri dira, eta hala senti daiteke, jakinminez eta ikusminez, ikuskizuna ahoz-ahoz dabilelako, ikusi duenak hari esan diolako, eta hark beste horri. Ez ETB2ren albistegietako ondarreko kultur albiste gozo eta larderiaz betetako horietan, ez. Ez baita marketina, halako ekitaldietan funtzionatzen duena, horrek funtzionatzen du Victora Eugenia. Hemen beste zerbait dago. Ikusten da ikusleen gaztetasun ikaragarrian, adibidez. Ez daukate telebistako albistegiak ikusteko itxuririk, gehiago daukate sare sozialetan ibiltzearena, eta hala ari da baten bat, oraindik hutsik dagoen *atrezzo* xumeari argazkiak eginez, "Instagramen jartzeko", airtortzen duenez. Nahi genioke galdetu ea zergatik etorri den, Zinemaldiaren atarian kazetariak ikusleekin egiten duten gisara. Baina galdera tokiz kanpo dagoen sentimenduak lotsarazi gaitu: zergatik etorriko zen, ikustera ez bada? Ikusteko asmo irmoarekin, besterik ez. Edo agian ez, agian etorri da zerbaiten "parte" izateko. Izan ere, *Erractus* ez dator, demagun, 1993an, feminismoa mugimendu guztiz bazterrekoa eta baztertua zen garaian, euskal kulturak hartaz ezertxo ere jakin nahi ez zuen hartan. Aderantziz, dator feminismoak geure gizartearen zentraltasunean txertatzeko giharra erakutsi duenean, eta, bide-nabar, geure kulturaren erraietan.

Nabari da, ikusleen artean ere, gehienak dira emakumezkoak (nahiz eta gizon saldoa ere baden). "Daneleren liburua irakurri nuen", dio Ainarak, "eta guztiz txundituta geratu nintzen, inoiz halakorik euskaraz irakurri gabea nintzen. Ez horrenbeste kontatzen den istorioarengatik, baizik eta kontatzeko moduagatik, modu freskoa eta probokatzaila". Bere aldamenean dagoen Garazik "fan totala" dela aitortu digu, ez duela ulertzen zergatik ez daukan "arrakasta gehiago".

Oholtzan dira Kattalin Miner, Danele Sarriugarte eta Jule Goikoetxea, suspiriorik ere ez da aditzen. Eszenatokian bezala dago dena isil eta geldidun eszenatoki aurrean ere. Eta ikuskizuna ikusi ez duenak ez daki, baina ikuskizunak ikusi duena bai, hasierako isilune hori espejismo hutsa dela, hasi orduko zabuka, trostan datozela hitzak eta keinuak, bost zentzumenak ez bada zazpi zentzumenak baliatu beharko dituzula esaten ari diren guztia entzuteko, ulertzeko, mamitzeko. Dena baita trinkoa, nahasia, probokatzaila, zuzena.

Danele Sarriugarte da hizketan ari dena: "Garagardoak edan nituen bata bestearen atzetik atsedenaldirik gabe, eta etxera iritsi nintzenean libidoa edo adrenalina edo humoreak erabat goratuta, erabat neurritz kanpo buiatuta, komunean sartu eta aluko biloa moztu nuen, hori ere performancearen parte izan baitzen, txiza-zipriztin ugarirekin batera, hala ere ni odolarenak ukitu eta garraiatu ninduen nolabaiteko estasi egoera hartara...".

Ariketa interesgarria da testua Danelek hitzok balak bezala jaurtitzen dituen bitartean entzuleek zer aurpegiera jartzen duten ikustea. Barre eutsia daukate batzuk, gozamenaren mugan baleude bezala, entzuten ari diren hori balitz bezala hain zuzen entzun nahiko zuketena; keinu oso serioa daukate besteek, zaila da seriotasun horren atzean dagoena antzematea. Beharbada kontzentrazioa da, besterik gabe. Danele: "Kontua da, aluko biloa afeitatzearena askoz irisgarriagoa zitzaidala nire odolarekin mozkortzea baino eta gainera ez geneukala xiringarik etxean eta gainera zinez desio zuena Judizmendiko tabernan gelditu



zela erreprimituta eta gertatu gabe, nik performancelariaren odola zupatu nahi nuen eta ondoren xurga ziezazkidala mamiak berak niri, plastikozko txupittoa eskaini zuenean niri behatzen zidan gogor, denentzat ari zen baina egiatan niretzat bakarrik, gauza horiek nabaritu egiten dira eta ipurtzuloa alderik alde zeharkatzen didan herdoildutako burdinazko gurutze ikusezin baina halere ukagaitzagatik izan ez balitz, ez nintzatekeen etxera txintxo-txintxo etorriko performancelaria dohakabetzuz". Testua amaitu orduko burua altxatu du, amaiera dela jakinarazteko edo, eta txalo zaparrada batek bete du aretoa. Entzuleek elkarri so egiten diote, esanez bezala, "hemen geunden hau gertatu zenean, alkarren ondoan gozatu hau hartu genuenean, ez dezagun ahaztu". Zuzenekoaren magia senti daiteke giroan.

Jule Goikoetxea da orain, modu pausatuagoan, polikiago ari dena:

Zure esku artean higatutako

erritmo horrek esnatu nau

8 hitz nahikoak dira esnatu berriko sexuaz ari dela jabetzeko, baina segi dezagun entzuten:

laba samurreko korronte leunen

sumendi vesubioar bat biribilduz

iskanbila kartsuzko

ezpain danbatuak

auhenen metrika oparoarekin

harmonizatzeko duten

gaitasuna dela medio

ezagunak

azti zaldunek

su aratzez galdatuz

nire ipurmasailak zure

musura

laba samurren gordailua

itsas-lurrin zuztarren

hezetasun etxekoia

ezer ez da soberan

ermami erregarri horien

swingean

hatz rizomatikoen


berariazko balada errotuak

sustraituta nire izterretan

ongia hutsaltasunean urtzeko duten

gaitasuna dela medio

ezagunak



Kuriosoa da. Nabari da halako ezerosotasun bat giroan, edo agian nau izango naiz. Baina badirudi orgasmoaz hain gordinki hitz egiten entzutea, eta, are, entzuketara hori modu partekatuan egitea, kosta egiten zaigula. Ez baitezagun ahaztu, Constantino Bertolok esaten zuen bezala, publikoan esaten diren hitz guztiak, publikoki hartzen direla, alegia, modu konpartitu batez, eta konpartitzen ari garelako jakintzarekin. Alegia: aretoan gauden guztiok garelako elkarrekin entzuten ari garen jakitun. Eta ez da erraza, edo agian ez da erraza niretzat, hori egiaztatzea. Eta agian horrexegatik ari gara hau eta ez beste zerbait entzuten, hain zuzen gauza hauek oraindik ez direlako normalak, eta normalak izan arte honek izango duelako pittin bat literariotik eta pittin bat aktibismotik ere, eta, zergatik ez, baita terapeutikotik ere.

Jule Goikoetxeak bi pauso egin ditu atzera, bi taldekideen alboan jartzeko. Hura dute mekanika, hitz egin behar duenak normalean bi pauso aurrera egiten ditu, eta gero besteengana itzultzen da. Itzultzeko momentuan, elkarri so egiten diote disimulurik gabe, eta irri konplize batekin; badirudi ongi ari direla esaten diotela elkarri. Edo, hori ez bada, beste zerbait, baina badago komunikazio bat, laburra, baina salbuespenik gabe gertatzen dena irakurri duena besteengana itzultzen denean. *Erractus* maitemintze pertsonal, intelektual eta literario batetik sortu zela esan izan du Kattalin Minerren behin baino gehiagotan. Eta keinu txiki horrek erakusten du Minerren hitzak ez zirela ikuskizuna edertzeko esandakoak, badagoela zerbait hortik ere.

Publikoari so egin diogu berriz, kasik oholtza bezain interesgarria delako gaur publikoa. "Plazerez hil nahi duzu, odolez zikindu gabe", darama neska batek paparrean, maukarik gabeko elastiko beltz batean, Kattalin Minerrek "mundu guztia harrapatzen duen esaldi grandioso" gisa definitzen duena. *Erractus*-en elastikoa da, Jule Goikoetxearen poesia batetik hartutakoa. Ez dirudi aita batek txaloka hartuko lukeen esaldia (beharbada bai), ezta askotan tokatzen zaizkigun lehengusu atzerakoi horietako batek ere, baina hamaika saldu dituzte eta, literaturari lotutako ekitaldietan behintzat, hamaika ikusi izan ditugu. Horra zer aldatu den azken 10 urteotan: lehen 'Euskal Herria askatu' irakurtzen genuen jende gaztearen bularretan, orain esaldi konkretagoak, intimoagoak, poetikoagoak nahi ditugu, ez izaera kolektiborik gabekoak, intimoaren proiektzioa beti baita publikoa, baina bai kriptikoagoa, esanahia 'bilatzea' eskatzen duten horietakoa. Mezuak ahitu egiten dira, hitzen balorea ezinbestean amiltzen da jendearen barruko burtsan. Julek, esaldia "dena nahi izateari" buruzko esaldia zela esan zuen, "dena nahi dugu, baina zer gaude egiteko prest?".

Esaldiak geure erreportaiaren goiburua gisa balio dezakeela pentsatu dugu, baina akaso okasioak merezi du pittin bat gehiago bilatzea, horrenbeste nabarmendu ez den beste esaldi biribil eta esanguratsu bat erreskatatzea langintza horretarako.

Ezer ez da hutsal *Erractus*-en baitan. Dena dator nobaitetik, eta dena doa nonbaitera. Dena dago metrika eder eta matxino baten barruan, zainduta, baina ez manierismoz mozorrotua, bat-batekotasunaren izpirituak kutsatuta baizik. Julek dioen bezala, "pasioa" behar delako bizitzeko, eta pasioa gehiago dago, agian, taberna zoko batean, lokal hits batean, diru publikoz ordaindutako antzoki larderiatsu horietako batean baino.

IXIAR ROZAS

**“GEURE GIZARTEAN, ESANAHIARI ERREPA-
RATZEN ZAIO, AHOTSA BIGARREN MAILA
BATEAN GERATZEN DA”**

Testua: Yurre Ugarte

Ixiar Rozasek bere ibilbide literarioan landu ditu *Edo zu edo ni* (2000) eta *Negutegia* (2006) (nobelak); *Korronteak* (2001) eta *Sartu, korrontea dabil* (2001) (narrazioak); *Gau bakar bat* (2004) (antzerkia) eta baita poesia ere, *Patio bat bi itsasoen artean* (2001). Joan den urtean, *Beltzuria* (Pamiela) eman zuen argitara, narrazioaren eta saiakeraren arteko testu ia sailkaezina, edo Rozasek berak askotan darabilen hitza gogoan, “performatiboa”. Huhezin (Mondragon Unibertsitatea) Arte Hezkuntzako irakaslea izateaz gain, Azala espazioko (www.azala.es) lantaldeko kidea da. Gu, haren ahots literarioaren gakoan bila abiatu gara elkarriketa honen bidez.



Zure ibilbide literarioan nobelak, na-rrazio liburuak, poesia auri ditzakegu. Zerk eraman zintuen Beltzuria idaztera, laburtuz saiakera eta narrazioaren artean dagoena, baina aldi berean genero bataren zein bestearen ezaugarriak betetzen ez dituen.

Izan da ibilbide luzea, *Beltzuria* ez da bat batean sortzen den zerbait, da urteetako prozesu bat, azken hamarkadako, justu gidoigintza mundutik distantzia hartu eta arte eszenikoen arlorako norabidea hartu nuen, zinezaletasuna ahaztu gabe, jakina, ze azkenean leku askotatik edaten dugu idazten dugunean. Eta, orduan, prozesu luze horretan, arte eszenikoetan hasi nintzenean, ahotsaren inguruko galderak etorri zitzaizkidan: hitza nola eraman espaziora, nola eman bolumena hitzei, hitzen bisualitatea, lengoaiaren performatibitatea, testu dramaturgikoetatik urruntzen den dramaturgia baten bilaketa. Eta kezka horiekin hainbat esperientzia egin ditut, bai arlo praktikoa bai arlo teorikoa. Batetik, arlo praktikoa hainbat gauza egin ditut: pieza eszenikoak, *Humano caracol* izeneko dokumental sorta hasi nuen 2006an, zenbait artistekin egindako dramaturgo lanak edota kreaio prozesuen laguntzaile bezala aritu naiz. Finean hainbat esperientzia, bidaiak, gauza asko. Bestetik, arlo teorikotik ikertzen ibili naiz eta denbora honetan guztian bilaketa horrek izan duen ondorio zehatza da 2010ean amaitu nuen doktore tesia. Bilaketa prozesu hori *Negutegia*-n ere agertzen da jada, ze, obra horretan badira gero erabili ditudan hainbat gauza; testu oso laburrak, narratiba poetiko baten bilaketa. *Negutegia*-n bazen jada hori eta baita *Gau bakar bat* antzeazlanean ere, eta behin hura amaituta hamarraldi luze bat izan da *Beltzuria*-ren prozesua beraz, bertan agertzen diren hainbat gauza, irudi, hitz, ahots, idazteko moduetan bilatzen ari naizena, ikertzen, ematen ere ibili naizena. Dena batera dago.

Eta doktore tesia?...

Ahotsari buruzko doktore tesia da, EHUKo Arte Ederren Fakultatean eginikoa, orain arte ez baita egon Arte Eszenikoen Goi mailako eskolarik, aurten zabalduko dute. Tesia Arte Eszenikoen inguruan egin dugunok Arte Ederren Fakultatean egin dugu gehien bat, performancea, koreografia, performatibitatea, dramaturgia, afektuak eta horrelako kontzeptuek bertan lekua baitute.

***Beltzuria*-k enigma baten antzera funtzionatzen du, alde batetik ez duzu fikzio linealik eraiki eta aldi berean, (zure aitonaren) bizitza istorio bat seinatzen duzu, biografia bat/batzuk...**

Bai, izan daiteke enigma bat, bilaketa bat dagoelako denbora guztian, eta horrek egiten ditu tentsatu liburuan dauden elementuak, tentsio bat sortzen duelako baina, aldi berean, esan esaten dut liburuaren helburua ez dela tentsio narratiboa, beraz hor sartu eta atera egiten naiz oso modu librean, ez nago tentsio narratibo baten menpe edo haren bila.

Enigma, diot, ze liburuak azaleratzen du testu baten eta irakurlearen arteko harremana, irakurleari ematen diozu testua osatzeko tarte handia edota harreman hori birplantarazten da ezinbestean.

Bilaketa prozesuaren ondorioa da... Ze, azkenean, ikusten duzunez, ez da hain inportantea zer bilatzen den, baizik eta prozesua. Hain justu, liburuak idazten hastean ez daukat ezer, bakarrik daukat hitz bat: beltzuria. Nire ama behin etortzen da etxera eta esaten dit: gaur nire haurtzaroko hitz bat gogoratu dut, hondartzan nengoela zerua belztu da bat batean eta esan diot ahizpari "A ze beltzuria datorren". 2006ko udan esan zidan hitz hori amak, *Negutegia* bukatu eta hilabete gutxira. Eta hortik abiatu nintzen. Hitz hori baino ez neukan. Gero, idazteko kalitatezko denbora lortu nuen hasi nintzen idazten. Besteak beste, ahotsaren inguruan nituen galderak areagotu ziren ikerketa hasi nuenean. Liburuak "beltzuria" hitzetik eta ahotsaren inguruko gogoetatik abiatuta, bilatuz, aurkitu dudana da.

"Ahotsaren teorizazioan ahotsari buruzko liburu gutxi daude; erabili ditudan iturrietan teoria feminista izan da garrantzitsua"

Zoriak gidatu zintuen, beraz.

Bai, erabat. Ez neukan aurrez idatzitako gidoirik, ez nekien nondik pasako nintzen liburuak idazten ari nintzenean. Zer ez nuen nahi banekien: ez nuen aitona bertsolariaren istorioa kontatu nahi, modu narratiboan, haren biografiako puskak elkartuz. Eta ohar gutxi batzuk han eta hemen. Liburuak, idazten egon naizen bitartean sortu da. Aurretik ez dago ezer ez. Eta gero, edizio eta muntaia lan handia dago, hori bai.

Sormen literario lan bat sormenaren gainean gogoeta dakarrena. Literaturaren beraren izaeraz gogoeta pizten du liburuak, eta duen ezaugarrietatik garrantzitsuenetakoa da, besteak beste.

Horrela bizi izan dut liburuaren idazketa prozesua, kreaioa eta idazketaren izaerari buruzko gogoeta hori eginez. Niretzat oso garrantzitsua da irakurlea nola sartzan eta egoten den liburuan. Pasarte batzuetan adibidez, beste batzuetan gutxiago, esanahiak ez itxia bilatu dut, baizik eta irakurlea izatea esanahia osatu, egin eta hori nola interpretatu erabakitzen duena. Denbora guztian irakurlearen erritmora joaten saiatu naiz. Testu guztiak ozen irakurri ditut, asko, behin eta berriro. Erritmo bat sortu nahi izan dut eta horri eutsi denbora guztian. Zentzu horretan dramaturgia estu bat dago liburuaren materialen artean, haien arteko erritmoak, erresonantziak, sortzen joaten diren irudiak eta argilunak.

Performatibitatea... Literaturazaleari arrotz zaion terminoa edo bost axola zaion termino bat, baina liburu honetan oso presente dagoena.

Kontua da hitzaren esanahi ezberdinak daudela. Liburuan agertzen doazen materialak aurretik dauden irudi eta ahotsei, ondoren datozenei, idazketa eta irakurketa prozesuari berari nola eragin eta eraldatzen dien ere kontuan izan dut. Testu horiek zuzenean osatzen joaten egongo balira bezala. Testua gauzak eraldatzen zihoazen bitartean osatu da, lehen esan bezala. Badago material horiek uneoro bizirik mantentzeko bilaketa bat, zuzeneko batean bezala. Izan daiteke zuzeneko eszeniko bat, baina baita dokumental batean gertatzen den bezala (nahiz eta batzuetan dokumental "faltuak" izan). Esan bezala, ez nuen narrazio bat idatzi nahi, non aldeaz aurretik badakizun pertsonaiari zer gertatuko zaion. Momentu honetan ez dut horrela idatzi nahi. Hori kontuan izanda idatzi nuen denbora guztian, eta pentsatzen dut horrek ere eragina izan duela irakurlearengan.

Fikzio kontrolatzailea ez zaizula interesatzen esan izan duzu.

Hala da, eta lotuta dago orain esan dudanarekin, ez da ez zaidala interesatzen, baina niri momentu honetan kostatu egiten zait horrelako liburuak, horrelako antzerkia, horrelako filmak, sorkuntza arloan aldeaz aurretik erabakita dauden istorioak, gidoi eta egitura hertsia batekin. Orokorrean, zeren salbuespenak badira, ez didate ekarpenik egiten eta gauza gutxi mugitzen dute nire barrua, horrelakoekin ez dut esperientziarik egiten eta niretzat garrantzitsua da arte objektu edo dena delakoarekin esperientzia bat egitea; hori irakurle eta publikoa naizen aldetik, orduan, sortzerakoan, gauza bera. Sortzen dudanean ezin dut aspertu, aspertzen banaiz, zertarako egin?

Ahotsa da liburuaren gogoeta gehieneko puntu komuna: ahotsaz hausnartzen duzu alde askotatik begiratuta.

Kontua da gure gizartearen esanahiari erreparatzen zaiola gehienbat eta ahotsa geratzen dela bigarren maila batean, eta hau ez da kasualitatea,

hau gertatzen da pentsamenduaren historian beti izan delako horrela, beti gailendu da hitza, hitzaren esanahia, ahotsa beti izan da bigarren mailako zerbait, soberan dagoena, oharkabeen pasatzen dena. Ahotsa ikertzen hasten zarenean konturatzen zara ahotsak ez duela mugarik eta ez dela gauza etereoa edota abstraktua. Ahotsa oso gauza fisikoa da, materiala, arnasketarekin zerikusia duena. Besteak beste, teoria feministatik datorren pentsamendu ildo batean murgildu naiz idaztera, eta niretzat apasionantea da, hor barneratu, eta hortik tira egitea.

Euskal kultur tradizioan, ordea, ahozkotasuna saihestezina da, aberatsa.

Bai, hala da, baina aldi berean ez zaio erreparatzen ahotsaren fisikotasunari edota izate politikoari. Ahotsak baititu bi ezaugarri: oso gauza pertsonala, bakarrik egiten gaituena dela eta erlazonala dela... Orduan, ez zaio horri erreparatzen, garrantzirik izango ez balu bezala. Bertsolariek, esate baterako (eta liburuan ere idatzi dut horri buruz orain esango dudana baina modu mamitsuagoan), beti esanahiari eta hitzari lotuta abesten dute. Zer gertatuko litzateke esanahitik askatuko balira? Badira esperimentazioarako joera duten bertsolari batzuk, zergatik ez egin hori? Baina kontua ez da bakarrik esperimentatzea, baizik eta horren inguruan ere gogoeta egitea.

Zuberoako basa aireak (letrarik gabeko kantauak) egon badaude.

Adibidez, bai. Lengoaia hor gramatikatik aske dago, bai. Baina egia da ere, hor kantauak musikalitateari lotuta daudela, musikaren mende kasu batzuetan, eta hor beste arlo batean kokatzen garela. Eta badira musikariak basa aireak jarraituz ere beste bilaketa batean daudenak, arritmikoagoa, esango genuke.

Isiltasunaren garrantzia seinalatzen duzu, edo ausentziarena.

Bizi gara hain mundu zaratzatsuan, zentzu guztietan, hitz, irudi eta zaratekin bonbardatzen gaituzte uneoro. Uda partean gure hiri eta kaleetan dagoen kutsadura akustikoa, esate baterako, izugarria da, batzuetan jasanezina izateraino. Isiltasun uneak, niretzat behintzat, beharrezkoak dira. Gizarte bezala ere, ez ote dugu isiltasun gehiago behar? Kloroformoa ez den isiltasunaz ari naiz jakina, ez dezala kritikarako beharra, errealtatearen inguruko pentsamendu kritikoa isilarazi, anestesiatu. Baina ez dut mistiko jarri nahi isiltasunaren gaiarekin. Gainera, zer da isiltasuna? Zientifikoki frogatuta dago isiltasuna ez dela existitzen. John Cagek esperimentu bat egin zuen 1951. urtean, ze nahi zuen erabateko isiltasuna entzun, kamera anekoikoa izenekoan sartu zen, eta hor konturatu zen ez zela isiltasunik. Bi hots entzuten zituen, bere sistema nerbio-soa eta bere odolaren zirkulazioa. Horren ostean sortu zuen hain ezaguna den bere 4'33", "isiltasuna" baino ez dena.

Erreferentziaz betetako testua da Beltzuria, baina denak ildo baten barruan, adibidez, poeta guztien artean Mallarme aipatzen duzu: sin-taxi esperimentaleko poeta, sonoritateak eta koloreak hitzen esanahi kotidianoak bezain besteko garrantzia dute haren poesian.

Bai, ez da kasualitatea, Mallarmek eragin handia izan zuen ondorengo artisten belaunaldietan, dramaturgia bisualetan esate baterako.

John Berger, Pasolini, Judith Butler...

Eta badira erabiltzen ditudan erreferente gehiago. Normalean Berger azpimarratzen dute liburuari buruzko iruzkinetan eta kurioa da. Egia da erreferente literario garrantzitsua izan dela niretzat eta orain, batez ere, duen koherentzia politikoarengatik estimatzen dudala. Ipurtargi modukoak dira niretzat bai Berger bai Pasolini, bai Butler, Adriana Cavarero... Butlerren solaskide europarra da Cavarero, maila berean jar ditzakegu biak, pentsamendua sortzen ari dira feminismoan eta pentsamendu politikoan, eztabaida sakonak dauzkate. Cavarero liburu hau idazteko ezinbestekoa izan zait, pentsalari garrantzitsua da une honetan niretzat. Gainera, aurtan, Kaxildara gonbidatu dugu bulnerabilitatearen inguruan egindako *Arrakalatuta* mintegi sortara, bera ezagutu izanak erabateko garrantzia izan zuen nigan... Ipurtargi gehiago badira, emakumeak batez ere.

Zuk esana da liburu hau feminista dela. Zergatik?

Lehen aipatu dudana bezala, ahotsaren teorizazioan badira ahotsari buruzko liburu gutxi, eta erabili ditudan iturrietan, teoria feminista izan da garrantzitsuen. Psikoanalisitik datozen ahotsari buruzko teorizazioak ere badira, baina haiek ez naute hainbeste asebate. Errebelazioa Adriana Cavarerorekin etorri zitzaidan, ahotsaren izate fisikoa eta politikoa

bateratzen baititu bere pentsamenduan. Iturri klasikoetatik eta Derridatik ere asko edan du, baina aldi berean kritika egiten dio, hain zuzen ere, Derridak ahotsari ez diolako behar bezala erreparatu. Orduan, hasteko, horrexegatik eta ni ere feminista naizelako da liburu feminista. Eta, baita ere, beste arrazoi batengatik; bertsolaritzak (eta ez bakarrik) esanahiari lotuegia jarraitzen duela esatea, kontsentsutik urruntzen den gogoeta da. Feminista da horregatik? Ba, ez dakit, baina bertsolaritzan beste egiteko moduak gehien bultzatzen ari direnak ere emakumeak dira, eta esango nuke hori ez dela inondik inora kasualitatea. Aldi berean, liburuan amatasuna ere oso presente dago, ez modu esplizitoan beti, baina badago: amatasunaren prozesuan egon naiz liburuan idazten, gorputzaren presentzia, fisikotasuna, emakumetasun batetik idatzia dago.

Autoerreferentzien tartean, azken orrialdeetan, idazteko behar dituzun gauzen zerrenda azaltzen duzu. Ez dakit ba, baina nekez irudika dezaket gizonezko idazle bat idazteko behar dituen gauzak, edo egoera, behin eta berriro aipatzen...

Baliteke, egia esan nik ez diot idazle gizonezko bati inoiz galdetu zer behar duen idazteko... Nire zerrenda oso oinarritzkoa da, austeroa, behar dut austeritatea idazteko ere, behar dut ezer soberan ez egotea. Gogoko dut pentsatzea hor badela ekologia bat, lanaren ekologia eta etika moduko bat, inguratzen gaituzten ekosistemetan ere nolabaiteko eragina izan dezakeena.

Meditatzeko kuxina ere behar duzu... Meditazioak garrantzia du zure bizitzan?

Meditazioa eta arnasketa atentzioa gorputzera eramateko moduak dira, beraz, gorputza ezagutzeko moduak. Gorputzean dena sartzen dut, pentsamendua ere jakina. Arnasketaren bitartez erritmo aldaketa ematen da, niretzat hori funtsezkoa da, baina ez dut mitifikatu nahi. Paseo bat ematen ere meditatzen ari zara, edo telefonoa itzaltzean, edo batek daki, telebi-

"Gizarte bezala ere, ez ote dugu isiltasun gehiago behar? Kloroformoa ez den isiltasunaz ari naiz jakina, ez dezala kritikarako beharra, errealtatearen inguruko pentsamendu kritikoa isilarazi, anestesiatu"



sta piztuta dagoela ere mediatu dezake norbaitek... Oso gauza pertsonala da hori, horren beharra ere bai.

Norbaiten oinordeko literario sentitzen zara, edo nahiko zenuke izan?

[Barre egin du] Ez dut inoiz horretan pentsatu, hori galdera tranpa da. Nire ustez, garrantzitsuena da, eta epe luzera pentsatuz, egiten dudana ahal dudan ondoen egitea, koherentzia, eta lanean jarraitzea, eta hor egotea. Lehen aipatu ditudan ipurtargiak, erreferenteak dira eta hor egotea eskertzen diet. Nik zama bezala ikusten dut ezeren oinordeko izatea, batek daki, denborak esango du... Gainera, gertatzen zait orain bizitzaren nahiko momentu pragmatikoan nagoela.

Eguno Ixiar Rozasek zer du telesailatarako

idatzi zuen idazletik?

Hau bai erantzuteko zaila! *Beltzuria*-n ez dut gidoirik prestatu aurretik liburua idatzi ahal izateko, esan bezala. Hori egin izan dut, batez ere idazten hasi nintzenean. Baina egia da gidoigintzak ofizioa ematen dizula, egunero gogorik ez badaukazu ere idazteko entrenamendua izan daitezke. Beno, badira diziplina hori ematen dizuten gauza gehiago... Zinezatasuna geratu da, hori beti dago presente.


Zer irakurri duzu azkenaldian?

Gauza desberdinak; une honetan Didi-Hubermanen gazteleratu duten *Pueblos expuestos* entseguarekin nago eta Jon Gerediagaren azken poesia liburua ere irakurri berri dut, oso gustura egia esateko, gozatu dut. Udan honetan nahiko saltoka ibili naiz irakurketekin, batetik bestera.





Zaila da euskal literaturan bere obra Ixiar Rozasek bezainbeste aldatu duen idazlerik aurkitzea. 2000 urtean Ereinekin *Edo zu edo ni* nobela publikatuz geroztik, genero asko ukitu ditu, hala nola ipuina edo antzerkia, baina, azken bi liburuetan, *Negutegia*-n eta *Beltzuria*-n, generoez haragoko obra sortu du, nobela izan litekeena baina zinez eta zentzu hertsian nobela ez dena.



BELTZURIA

Ixiar Rozas

Pamiela 2014




NEGUTEGIA

Ixiar Rozas

Pamiela 2004

67. ORRIA



Ametsak ere zain

Mikel Antza
Susa, 2015

"Gutxi behar da kartzelan
bertsona
bertsona huts ager dadin
eguneroko bizimoduaren inaute
mozorrorik gabe
apaingarririk gabe
makillaje gabe
aitzakia gabe
arropa gabe
biluzik
hitzik gabe
baina ez mutu "



Lorea Gernika **ANDRAZKO BAT**

Koldo Izagirre
Susa, 2015

"Kexamendu urragarri bat. Haizea
ekialdetik. Ekialdetik, bai. Ohea
utzi eta egongelako arasaraino
etorri da Lorea Gernika haz-
tamuka. Kandela bat hartu, hantxe
daukan Irulegiko arno botila
hutsaren ahoan sartu, pospolo
kutxa zabaldu, ziritxoaren burua
paperlatzean igurtzi, garra
txortenari atxiki... Erredizeen itza-
lak kulunkan. Eta berea aldaroka
ikusiz, zorabio batean
Lorea Gernika."



Zu

Anjel Lertxundi
Narrativa, 92. 2015

"ZU MAITATZEN SEGITU, hau da:
Zuri zapatilak oinetan sartu eta
bainugelaraino lagundu, suero-
aren pertxa hartuta; Zu biluztu,
sueroaren botila pasatuz kamisoi-
aren mahuka laburretik. Xaboa
banatu Zuren gorputz guztiz
argalduaren goibehe, atzean eta
aurrean, ipurmasailetan, sexuan.
Xaboi guztia kendu dutxako urtu-
rrutarekin. Toalla hartu eta ondo
lehortu. Kamisoi garbia jantzi..".



Beti oporreten

Harkaitz Cano

Susa, 2015

"Mendian esnatu den edonork badaki hori. Erre usainak ez duela hainbesteko enbarazurik egiten egunsentiko aire freskoarekin batera datorrenean. Bezperan okela erretzeko egindako suaren errautsek azpimarratu egiten dute naturaren distira, oxigenoak biriketara dakarren mesedea, erregaitzat erabili zen zedroaren usainak gain hartzen dio bere kixkaliari. Bart izarren esne parrastadak bezala, naturak gaindiezin aurkezten du bere burua egunsentian. Hala sentitu dute gizon zuriek, sekula ikusi gabeko urdin hark gain hartzen diola beste edozeri. Txiki sentitu dira txiki. Txiki eta ezdeus. Koberturarik ez dago hemen, ezta?"



Ez tiro egin ambulanziei

Mikel Ayllon

Elkar, 2015

"—Goazen galeriako ate nagusira, ea irekita dagoen. Zerbait esateagatik esan du. Zure eskeari nola edo hala erantzutearren. Ia indarrik gabe atera dira hitzak Telmoren ahotik, zigarroari azken zupada eman eta mutxikina hatz artetik lurrera abailtzen utzi ondoren. Atea itxita egongo den segurantz duela esango zenuke, ezin imajina dezakeela galeriako atetzarra irekita, edo ez duela imajinatu ere egin nahi. Ate denak itxita dituen presoarentzat nahikoa konplikatu da, engoitik, soka gainean orekari eustea. Are konplikatuagoa, poltsikoan daramatzan harritzko aingurak erdibitu egin bazaizkio. Mugitu ezinda egon zarete oraindik tarte batez."




Ehiztariaren isilaldia

Luis Garde

Pamiela, 2015

"Umetako oroipenekin batera Ezkabarenak ere bukatzen dira. Nire azken irudia eskolako lagun batena da. Galsoro baten ertzean ezkutaketan jolasten ari ginen taldetxo bat. Bat-batean, eztanda baten zarata; kea zerion sasitza bati. Hanka bat odolez blaitua zu- elarik korrika azaldu zen mutiltxo argal-argal hura."



Hondamendia

Xabier Montoia

Elkar, 2015

"Halako gizon bati, halako lagun bati ari zaio traizioa egiten. Jakinaren gainean dago. Okerrena horixe da. Ezagutuko ez balu, nor den ez baleki, oroitu ere ez zen hartaz eginen. Besterik gabe, emakumearen musu eta laztanekin gozatuko luke, haren bular bikainen bistarekin. Eta gozatzen du, zinez, baina ez nahiko lukeen moduan."




Perlak, kolpeak, musuak, traizioak

Josemari Iturralde

Pamiela, 2015

"Arcadio Torrijón, ABC egunkariko kirol kazetaria, bueltara ari zen hoteleko sarre- ra-aretoan, Uzkudun boxeolaria noiz azalduko. Saiatzen ari zen memorian gordetzen, apunteak begiratu gabe, txapeldunari egin behar zizkion galderak. —Noraino agintzen du diruak Paulino Uzkudunen munduan? —izan zen Torrijónek tupustean bota zion lehen galdera kafetegiko txoko apartatu batean biak eseri zirenean. —Zergatik diozu hori? —erantzun zion Uzkudunek, nahiz eta ederki asko zekien zertaz ari zen kazetaria."



Ukablak eta loreak

Julen Belamuno
Elkar, 2015

“–Oroitzapen selekzio bat egiten dugu beti –jarraitu zuen gizonak; adoretuta zirudien, mundu guztiak dakiena esplikatzan ere ez zen kikiltzen orain–. Behin eta berriz oroitzapen ditugunak bakarrik geratzen dira gogoan. Gainontzeko guztiak ahaztu egiten dira. Azkenean, oroitzapen hautatu horiekin aita desberdin bat eratzen dugu, asmatu egiten dugu. Haurtzaroa neurri handi batean asmatzen dugun bezala, haurtzaro hartako aita ere asmatu egi-ten dugu. Nik errazago daukat; nire aita oraindik bizi da, eta aita zorrotz eta larderiatsuen irudia betiko geratuko zait. Zurea zailagoa da. Urte asko pasa dira, eta oroitzapen lauso batzuk besterik ez dituzu. Beste edozeinek bere aitona izan ditzakeenak bezalakoak.
–Eta zuk lagundu egin nahi didazu nire aitaren irudi zuzena eraikitzen –aurpegiratu zion Elejostek. “



Karabola toxikoak

Andoni Urzelai
Susa, 2015

“Andoni Urzelai
Bat: egiten dutenaz harro daudenez, ez zukatek euren jarduna eufemismo txatxuekin moztortu beharrik: herritar xumeen hobe beharra, abangoardia eta abar. Zinezkotasuna ematen ziek horrek. Bi: morroiak badik euskal kulturaren ezaguera nabarmena. Ez diat esango euskara jasoa darrabilenik, baina bai ondo landutakoa. Hiru: ez zakiat letra molde diferenteen erabilerak zerbait argitu diezaguken, baina ez duk kasuala. Izan litekek autorearen gogo suminduaren adierazgarri. Panfletoari eman ziotek, gainera, halako ukitu anarkista baldar bat. Baina esango nitek, halaber, gure morroiak ez duela gazte petral buruarin gisa nabarmendu nahi. Lau: bigarren asanbladari egindako aipamen horrek zerbait garrantzizkoa ezkutatzan dik. Zatibitze bat akaso? Ez genian besterik behar!
— Laburbilduz...
— Susmagarriak izan behar dik kulturarekin zerikusia...”



12etan bermuta

Jasone Osoro
Elkar, 2015

“Learen etxera lotara? Ez dakit ba... baina nork gonbidatu zaitu? Leak? Eta bere amak ba al daki? Zuek txikiegiak zarete planak egiteko... Ez dakit ba... Bere amarekin hitz egingo dut... Baina gaur pentsatuta nuen pizza bat afaltzea hirurok salan, pelikula bat ikusten... ez al da plan hobea hirurok salan afaltzea? Lea, Lea, Lea...
Beti Lea gora eta Lea behera.”..




Bi urtetako kronika fakultatiboa

Joan Mari Irigoien
Elkar Poesia, 2015

"Egin hegan, bai, bilobatxo,
zure aitona ezindu honek ere
hegan egin dezan zurekin,
zaldira igota,
tukuta-tukuta!

Paradisuan bizi da haurra,
eta haurrak haur bihurtu nau:
nola nik hori uka,
ni ere Paradisuan sentitzen
bainaiz jada,
tukuta-tukuta...? "



Literatura hiztegi tekniko laburra

Karlos Linazasoro
Elkar, 2015

"Euskaraz ez dago bukolikorik.
Adjektibo bat galdu da. (Bila
dabilta beraren)
Etxe txikitxo txuri baten aitzinean,
akaso? Lau haitz handiren sa-
belean, agian? Alaba Kattalinen
zeru-zola begi urdinetan, behar-
bada? Emazte Mariaren sabelpe
garbian, otean?
Nahikoa ote euskaldunon ar-
tzaintasuna gaztelarren bukolismo
sendoa berdintzeko? "



Gidariaren okerra

Gotzon Barandiaran
Susa, 2015

"Narditarren estatutik lekora joan
zitzaidan behakoa, dozena erdi
argazki haiek trinkotzen zirela.
Nire kamera poliziatzarako erabili
nuen lehen aldia al zen? Zenbat
argazki atera ote nituen inoren
kontrolerako baizik ez zirenak?
Zelal hartu nuen gomutan. Eta
Zack Vicente. Eta erakusketa. Eta
glaukoma. Erreskadan etorri
zitzazkidan, braustakoan, esku-
etatik itzuri egiten zidan hariren
batek moropildurik. Betidanik
lagun taldeei iskin egiteko nuen
joeraz pentsatu nuen, pertsonak
bakarka, zuri-beltzean argazki-
ratzeko zaletasunaz. "



Baionak ez daki

Bea Salaberri
Susa, 2015

"Besaulkian urtzen noa, hasperen
batean, leihotik soa galdurik.
Noiz eta, justu xuxen, bi oren
eta erdiz bakar bakarrik egona
bainaiz, ardura ez gertatua. Eta
aspaldian ez baitzitzaidan gertatu
garbiketa egitea etxean, bi oren
iragan ditut mustuka higatzen.
Ez ditut zoko guziak altxatu eta
errautsak uxatu azken izkina-
raino, ez, ez... Baina inork ez nau
nire lanean moztu, ez da telefono
deirik izan, ez haur mukizurik
marrumaka, nehor ez atean... Bi
oren bakean. Eta, gauza arraroa:
ez nukeen beste nonbait
egon nahiko".



Orain hilak ditugu

Karmele Jaio
Elkar Poesia, 2015

"Eguerdian,
etxerako bidean,
ogi erosi berriari
koskorra jan bitartean,
bidai agentziako
erakusleihoan dauden
New York
Paris
Istanbul
Habana Lisboako
argazkietan agertzen den
jendeari
begira geratu naiz.
Etxera sartu
eta dilisten usainak
zizt egin dit gibelean.
Min ematen dit
izan ez naizenak. "



KATIXA DOLHARE

**“BIZITZAN EZ DA DENA BIRIBILGUNE, BETI NORAEZEAN
ITZULIKA; ATERABIDEAK ERE BADAUDE”**

Testua: Danele Sarriugarte

Estreinako lana argitaratu zuen 2014an Katixa Dolhare-Zaldunbidek, *Biribilgune* izeneko eleberria, Elkar etxearen eskutik. Polizia-ikerketa bat ardatz, hainbat gairi buruz jarduteko baliatu du literatura Ezpeletako autoreak: identitatea, periferia, giza harremanak, kolonialismoaren ondorioak, unibertsaltasuna eta tokikotasuna... Literatur ikerlea eta irakaslea da lanbidez, eta *Berria*-ko *Hirudía* literatur zutabea idazten du hiru astean behin.

Euskal Herrira itzuli eta eleberria idatzi, badirudi biak bat izan direla. Loturarik ba al da bi gertaeron artean?

Esperientzia hein batean traumatizagarria izan zen niretako hainbeste urtez Paris inguruan egotea, toki desberdinetan eta baldintza txarretan eta, bereziki, Euskal Herrirat itzultzeko menturarik gabe. Pentsatzen nuen berdin betirako han bizi beharko nuela, eta ez hautuz. Beraz han bizitakoa partekatze gogoa izan nuen, pozez jakin nuelarik herrira-tzen ahalko nintzela. Gehienik bultzatu ninduen Gazteluma beka izan zen, Euskal Kultur Erankundeak eta Elkar fundazioak bi urterik behin zabaltzen dutena. Pentsatu nuen: zergatik ez? Orain da momentua, garai hori bukatuta dago, beste bat hasten da... atera dezadan baikorrena iragan horretarik.

Hitz egin dezagun liburuko gaiez: adibidez, lurraldea maitatu arren lurraldean arrotz sentitzeaz.

Egiazki bizi dut kontraesan hori, pentsatzen dut beste askok bezala: kontradikzioz beteak gaude euskaldunok. Aunitz miresten dut Itxaro Bordak idazten duena eta bera ere hari horretarik ari da. Iduritzen zait hari esker, Iparraldean, beste idazleek ere libroi idazten ahal dutela gai horretaz.

Argi-ilunak topatzen saiatu zarela iruditu zait, Frantziaren iragan kolonialaren ertzak, adibidez: laikotasuna balore on unibertsala da Frantzian, baina senegaldarrentzat balore arrotz bat da, kolonizatzailak ekarria, eta beren aurreko sistema hautsi zuena.

Hango jendeek esplikatu zidaten hori, eta harritu egin ninduen. Banekien Frantziako balore unibertsalak ez zirela unibertsalak, inposatutako baloreak ez direla unibertsalak izaten, baina argiki esan zidaten: gure sinesmenak suntsitzea laikotasunaren izenean, moralaren aurkako jokaera da.

Hain zuzen ere, pertsonaiak beste arrotasun horrekin egiten du topo Senegalera doanean, bertako jendeekin ezin komunikatzea...

Orain gibelapenarekin pentsatzen dut bikain dela kanpoan arrotz sentitzea eta baita gutietsia ere. Guk joera hori dugu aunitz kanpota-rren kontra, eta ongi da gu egoera horretan sartzea eta ikustea zer bizi daitekeen. Beti erraten da, denak berdinak garela, eta ezberdinak aldi berean, baina hori ezagutzea zinez, konkretuki, hori zer den sentitzea bitxia egiten da: adibidez *banlieue*-an estatu frantsesaren funtzionario gisa kontsideratua izatea, eta gizartean ontsa integratua ikusia izatea. Berdin hango sisteman edo Afrikan bertan gutietsia izatea: zuria, diruduna... On egiten du besteen iritzia ikusteak, izpiritu arras desberdineko jendeen artean murgildua izateak, eta ez maila berean, baizik eta apalago ikusia izateak.

Lanagatik ala aurretik ere kezkatzen zintuen gai horrek?

Lehenago ere aspertzen ninduen abertzaleen munduko *mono-diskurtsoak*, sentitzeak sentsibilitate guztiek ez zutela baitezpada iritzirik ematerik militantziari buruz: zer den militante izatea euskararen alde, Euskal Herriaren alde, ba ote den ideia bakarra Euskal Herriaz, euskaraz... Hori sentitzen nuen hemen, eta ondoren kanpora joatean bertze gaiei buruz ere pentsatzen hasi nintzen, unibertsaltasunaren eta tokikotasunaren ildoei tiraka.

Posible al da elkartasuna lantzea euskaldunen eta banlieuetako biztanleen artean?

Ez dakit xuxenki horrela konparatzen ahal den, baina niri gogoeta horiek sortu zaizkit euskalduna bainaiz. Saiatu naiz beti kontziente izaten ea haiek zer zuten nitaz, funtzionario gisa eta frantses gisa, ahantzi gabe euskalduna nintzela.

Esperientziak irakatsi dit mugak gauza birtuala direla, guk eraikiak eta gure esku dela horiek apurtzea.

Itxaro Borda aipatu duzu lehen eta eleberrian ere Amaia Ezpeldoi agertzen da. Ageriko erreferentzia horretaz gain, badirudi aski identifikatzen zarela bere lanarekin eta gauzak ulertzeko erarekin.

Omenaldi gisa eskertu nahi izan dut bere liburuek ekarri didaten irauteko indarra, trenean irakurtzen bainituen Pariserakoan. Mailegatu dizkiot gai batzuk, neronek bizi izan ditudanak baina bere liburuetan ere agertzen direnak: protagonistak izenik ez izatea, imigranteak, emakumeen protagonismoa, homosexualtasuna doi bat... Ez da bere heinean ezartzeko nire burua, baizik eta esker bat bezala. Bertzalde, Iparraldeko bertze idazleengandik, beharbada, ez du merezi lukeen esker ona jaso, literaturari ekarri dionarengatik.

Alor profesionalen ere idatzi duzu Bordari buruz.

Frantziako bi unibertsitate-aldizkaritan bi artikulua idatzi ditut auto-itzul-pengintzaz eta mugaren gaiaz. Pentsatzen dut Bordak merezi duela ezagutua izatea Euskal Herrikan kanpo ere, idazle gisa eta ez bakarrik euskal idazle gisa. Muga zentzu orokorrean ulertzen du: kontzientzien arteko mugak, oztopoak... Ni ados nago, eta esperientziak irakatsi dit mugak gauza birtuala direla, guk eraikiak eta gure esku dela horien apurtzea; herri ttipietan ere badira mugak, auzokoaren begirada, adibidez. Baina azken finean, bakoitzari dagokio hori gainditzea: muga horiez kontziente bagara, gainditzen ahal dira.

Elkarbizitza eraiki beharra dago?

Biziki pozik nago garai honetan sorturik, bake-prozesua hastapenetik bizi ahal dudalako, nahiz eta bestalde bizitza ez den hain erraz. Prozesu luzea izango da, hogeit urte, Gerry Adamsen arabera, baina biziki interesgarria da gauzak eraiki egin behar direlako, gerla baten ondoren bezala, zubiak, denen artean.

Idazketa-prozesura itzulita: gozamenekoa izan al da idazketa?


Loriatu naiz hau idazteko! Banuen epea, eta sostengatua sentitzen nintzen moralki, epaimahaiaren erabakiak bermatzen zuen bazegoela interes bat lan horrengan.

Akaso liburuaren umorean igartzen da loriatze hori. Irakurtzen ari nintzela etengabe ateratzen zitzaidan irribarrea.

Uste dut jende anitzen akatsa dela beren buruarekin serioegiak izatea. Norbera egoera desberdinetan eta distantziaz ikustea lagungarria izan daiteke, norbere buruari begira, eta ez aspertzeko modu bat ere bada. Ona da umorearekin eta ironiarekin ikustea gauzak, bestela laster izango nintzen etsipenaren amildegietan.

Pozik zaude eleberriak izandako harrerarekin?

Ez dut sorpresa handirik hartu. Irakurle goak zera dio, istorioa berez aski pobrea dela, baina hori nahikunde bat zen. Hegoaldeko batzuek erran dute ez dela sinesgarria protagonista polizia-emaztea izatea, baina pentsatzen dut Iparraldean arras sinesgarria ei dela, froga da ezagutzen dudala bat. Erran didate, baita ere, une batzuetan gaixtoa izan nintzela euskaldunen kontra, edo biziki ironikoa. Irakasle batzuegandik esker onak bildu ditut Iparraldeko euskalkietan idatzitako eleberri bat delako, lehengo zaharkeriak jorratzen ez dituen: artzaingoa, elizako gaiak, oroitzapenak...



"Biribilgune"
Katixa Dolhare
Elkar, 2015

Euskalduntasunari buruzko ironia horretan sakondu nahi nuke.

Gure kasuan iduritzen zait biktimak gisa agertzea badela heroi gisa agertzea, gure buruari begira. Eta iduritu zait horren kontrastea direla etorkin semeak eta Afrikan kolonizatutako ondoak, heroismorik gabeko biktimak dira, erromantizismorik gabek. Gure borrokak, ordea, badu noblezia, badu ospea, zapalduak gara eta harro gaude, burua xut atxikitzen dugu. Bakea arrunt lortuko dugularik arruntak bilakatuko gara gu ere, eta hori beldurgarria izan daiteke.

Amaierari buruz esan al dizute ezer? Zorionsuegia zela, akaso?

Garbi neukan ez zela tragedia bat izango. Hori igurikatuko zitekeen, baina iduritzen zait bizitzan gertatzen ahal direla bukaera pozgarriak ere, ez da dena beltza, nahiz eta dena beltz aurkezten diguten egunerokoa. Egia da pixka bat ipuin bat bezala bukatzen dela, baina ene helburua ez zen baitezpada sinesgarritasuna babestea. Bertzalde, zergatik liteke sinesgaitza? Bizitzan ere gertatzen dira hori baino gauza arraroagoak. Nire bukaera ez zait surrealista iruditzen, ikusi ditut beren bizitza aurrera ateratzen duten haur migranteak ere, ez dira denak miseria gorrian izaten bukaeraraino. Bada itxaropenerako tokirik.

Funtsean, protagonista bera ere Salimarekin elkartzan da azken buruan eta ertzetan dagoen jendearen arteko elkartzasuna azaleratzen da.

Niri gertatu zaidan bezala, lagunik ez banu aurkitu Parisen ninteke beti. Horregatik diot badirela sorpresa baikorrak, beste bihurgune bat ematen diote bizitzari: ez da dena ilun eta beltz eta tragedia, ez da dena biribilgune, beti itzulika, noraezean. Badira aterabideak, zortez-edo sortzen direnak.

Bakarti sentitzen direnak, egiazki, ez dira hain bakartiak ere. Itxaro Bordak ere aunitz jorratzen du bakardadea. Baina badira bera bezala pentsatzen dutenak, bere pertsonaien bizipenak bizi dituztenak... Bakarti sentitzen dena ez da horrela sentitzen den bakarra.

Literatura ikergai izateak eragin al du zure idazketan?

Puntako literatur ikasketa garaikideak jorratu ditut. Hein batean obra oso abstraktuak dira, eta hein batean irakurgaitzak. Interesatzen zait intelektualki hori aztertzea baina hauek gai sentimentalak ziren, ez nuen baitezpada obra literario handi bat egin nahi, ezpada gauza klasiko bat, partekatze ahal bezain ximpleki bizi nuena, eta ez dut helburu literario handirik izan. Hala ere, uste dut literatura dena dela, ez bakarrik gauza arrunt intelektuala (nahiz eta hori ere barrutik atera daitekeen). Nire

oinarrizko helburua zen ikustea balio bat zuenetz, zinez ez baitut ikastolan idazten ikasi, etxean ikasi dut euskara, dena ahoz, nire baitarik.

Haurrekin landu duzu literatura. Zer ondorio atera dituzu esperientzia horretatik?

Literatura beste planeta bat da haiendako, ez zaie horrela aurkeztu behar. Erran behar zaie: orain idatziko duzue testu bat gai horretaz, baina ez dugu literatura deituko. Testu bat irakurriko dugu, baina ez du balio literatuta hitza erabiltzeak. Biziki gustuko dute idaztea, eta beren bizipenak kontatzeko beharra dute.

Adibidez, behin testu bat irakurri genuen, eta horren haritik heldu zen Frantziako lehendakariari idazteko ideia, asaldatzen zituen egoera baten aipatzeko. Eta klase erdiak erran zidan: ez dugu eginen paperik gabekoak garelako eta gutunak bidaltzen badizkiozu kanporatuko gaitu. Hitzeman nien ez nituela gutunak igorriko, enetatz bakarrik zirela, eta gauza biziki hunkigarriak idatzi zituzten.

Akaso irakasten zaien literatura litzateke gakoa?

Horrelako eskoletara ez dira bidali behar nik ukan dudak bezalako formazioa duten irakasleak. Haurren aita-amen jatorrizko herrialdeetan ere badira idazleak, frantsesez idazten dutenak, eta han idatzitako literatura behar liteke landu, edo hemen etorkinen seme-alabek idatzitako lana behar liteke landu, behar lukete horrelako programa bat, ez Victor Hugo edo Flaubert irakurri... Haiendako ez du deus erran nahi, dena erreferentzia katolikoak dira; beste hizkuntza bat da, beste mundu bat.

Etorkizunera begira zer-nolako asmoak dituzu?

Badauzkat proiektuak buruan, baina ez aski burutuak azaltzeko. Nahiko nuke idazten jarraitu, baina denbora aurkitu behar dut.

Akaso irakasten zaien literatura litzateke gakoa?

Horrelako eskoletara ez dira bidali behar nik ukan dudak bezalako formazioa duten irakasleak. Haurren aita-amen jatorrizko herrialdeetan ere badira idazleak, frantsesez idazten dutenak, eta han idatzitako literatura behar liteke landu, edo hemen etorkinen seme-alabek idatzitako lana behar liteke landu, behar lukete horrelako programa bat, ez Victor Hugo edo Flaubert irakurri... Haiendako ez du deus erran nahi, dena erreferentzia katolikoak dira; beste hizkuntza bat da, beste mundu bat.

Etorkizunera begira zer-nolako asmoak dituzu?

Badauzkat proiektuak buruan, baina ez aski burutuak azaltzeko. Nahiko nuke idazten jarraitu, baina denbora aurkitu behar dut.

BERRITU ALA HIL

DENA EZ DA MAMIA: LIBURU DENDA BERRIAK

Testua: Lander Garro

Ixten direlako izan ohi dira albiste liburu-dendak. Hala da aspaldion. Beti izan baitu literaturak irakurle kopuru murriztegiaren agonia, madarikazio baten gisakoa. Dena doa handitzen mundu honetan, salbu eta irakurle kopurua. Literatura delako fenomeno bat tantaka eta ezinbestean odolusten ari dena, tranpa batean eroritako piztia zauritu baten pare, erremedio-rik gabe. Orain, gainera, liburu digitalen aroan, nork erosiko du liburu tradizionala den paperez egindako tresna anakroniko eta barregarria?

Eta ez luke zentzurik, beraz, liburu-denda berriak irekitzeak, baldin eta mundua abenturazale maitagarritz beterik ez balego. Logika makurren kontrako jende irrazional apasionatua, ekintzailea, ameslaria. Ze egon, badira halakoak. Eta geurean, kurioski, fenomeno berri bat sortu dute: liburu-denda soil ez diren liburu-denda berrien fenomenoak. Liburuak ikusi, dastatu eta etxera eramateko ez ezik, esperientzia txiki bat bizitzeko parada emango dizute denda berri horiek. Guk horietako hiru bisitatu ditugu: Kaxilda, Garoa eta Katakarak.







KATAKRAK

Iruñea

Eduardo Arteta
June Sanmillan
Hedoi Etxarte
Xabier Maeztu
Nerea Fillat

Katakarak liburu denden sartzean, mahaietan barreiatutik zerbait jaten edo edaten ari den jendea ikusi dugu. Libururik ez. Hormek garrasi egiten dute, hala ere: kontzertuak, hitzaldiak, mani-fak, ekintzak. Mahaietako jendea ere hala ari da, konspirazio giro bitxi batean. Barrara gerturatu gara zer edo zer eskatzekotan, eta deigarri egin zaigu bertan ikusgarri dagoen pastel eskaintza, ez bere oparotasunagatik bakarrik, eskaintzari darion alternatibotasunagatik baizik: pastel exotikoak, integralak, fruitu lehorrez beteak, espeltazkoak... ezberdinak, hitz batean. Katakaraken sortzaileetako baten bila gabiltzala esan dugu, Hedoi Etxarte poeta eta aktibista. Barruan ei dago, liburudendaren mostradore berriaren muntaketan laguntzen. Zeharkatu dugu jatetxe osoa barrurantz, eta, eskailera gutxi batzuk igo ondoren, liburu denda izugarri handi bat desku-

britu dugu. Garai batean izan zen eskola zaharraren (hala izan baitzen) itxura klasikoa gordezten du oraindik, han eta hemen ikus daitezke orduko aulki eta mahaiak, baina denda berria da. Eta bien arteko nahasketa da, hain zuzen, egoitzari dotorezia edo, are, xarma ematen diona. "Sartu orduko ezkerrera mahai txiki bat genuen orain arte, han egoten zen saltzailea eserita, baztertuta, ia ezkutuan", diosku Hedoi. Orain, mostradore berria jartzen ari dira, tamaina handikoa, estandarragoa, nolabait esan. "Orain tabernatik bertatik ikusiko da, eta badu bere garrantzia, oraindik bada-eta tabernara sartu eta hemen liburudenda badenik ez dakien jendea". Hori da kontua, hain zuzen: liburu-denden biziraupenerako, beharrezkoa al da liburuei beste negozio bat eranstea? Irmo erantzun du Hedoi: "Ez. Liburu-denda eta



taberna, biak dira autonomoak, bakoitza bizi da egiten dituen salmentetatik". Ongi dago jakitea (ez baikenuen uste). Alde batetik bestera arin mugitzen da Hedoi, barruan dauden milaka liburuetatik bakoitza zehatz-meatz non dagoen jakingo balu bezala. W.H. Auden-en *El arte de leer* hartu dugu, tapaki gogorretako edizio garesti bat, eta segituan ohartarazi digu: "Bigarren solairuan saiakera literarioaren tokian poltsikoko edizioa daukagu, Destino argitaletxearena: marroixka du bizkarra". Gora abiatu gara, eta hantxe dago liburua, beste hainbat saiakeraren artean. Bingo! Garai batean La hormiga atómica izan zen gaur Katakarak dena. Hura du hazia. Orain kooperatiba moduan antolatuta dago: "11

lagun gara kooperatiban, denak langi-leak, baina kolektiboan 16 lagun gara, proiektuarekin konprometituak, asanbladan parte hartzen dugunak". Horrenbeste jende zertarako, galdetuko du baten batek: "Kontua ez da liburuak eta ogitartekoak saltzea, da liburu aurkezpenak egitea, ardo dastaketak hilero, irakurle taldeak (lau daukagu), irakurketa ibilbideak (urtean 4 egiten ari gara, *The Balde*-rekin elkarlanean), ekoafariak, talde handientzako afariak, eztabaidak, asanbladak, hitzaldiak, ikastaroak...". Bai, amaitu da liburuak saltzen zituen betaurreko txikiko eta txalekoko liburu saltzailearen mitoa: liburu-dendak ja ez dira lehen zirena. Paradigma, dudarik gabe, irauli egin da oso epe laburrean. Katakarak alderik alde zehar-



GAROA
Donostia
Imanol Agirre
Aritz Zestona



KAXILDA

Donostia
Josean Arriola
Cristina Martinez
Nagore Oyaga
Dario Malventi

katzea, trantze luzea izan liteke liburu zale den norbaitentzat. 30-40 bat metro dauzka luzeeran, ezker nahiz eskuin liburuz beteta. Azkar antzeman dugu ez direla liburu komertzialak, eta literaturak toki handia daukan arren, badirela komikiak, saiakera politikoko liburuak, liburu bitxiak, eta abar. Esklusibotasunaren zirrara daukate, badakizu han ikusiko duzula ez duzula beste nonahi ikusiko, liburuak han uzten baduzu akaso betiko egingo dizula ihes. Eta, seguruin inpresio faltsua bada ere, ezin duzu sentipena egotzi. *Cuando el pueblo se organiza* saiakera liburu hartu dugu, hainbat egilek osatua eta Cisma Ensayo-k argitaratua. Ez dugu argitaletxea ezagutzen, beste hamaika ere ez. Susmoa daukagu ezingo dugula liburuak berriz zegoen tokian utzi.

Kaxilda

Katakraken tankera beretsukoa da Donostiako Kaxilda ere, gastrono-

mia, literatura eta aktibismoa uztartzen dituen. Amara Zaharreko pilotaleku txikiaren alde batean dago, eta haur bat ari da bertan, erraketaz, bakarrik. Diseinu aldetik aski garaikidea da Kaxilda, espazio hutsak (diafanak), egurra hormetan, oharrak idazteko arbela... Lehen begi kolpean, hemen ere, jatetxea. Liburu-denda atzean dago. Inoiz beste inolako liburu-dendatan ikusi gabeko tituluak antzeman ditugu segituan, esate baterako Theo Angelopoulos zinegile greziarrari buruzko saiakera kaskarin eta eder bat, *Alfabeto Angelopoulos* izenekoa (Arte y estéticak argitaratua), ikusi orduko etxera eramateko tentazioa pizten duena. Eta ez da bakarra. Haren ondoan kronika ez den baina kronika izan litekeen saiakera tankerako liburu arraro bat: *El mar interior*, Philip Hoare britainiarrarena. Balea baten isatsa dauka azal deigarri-

an, eta jendartean oso ezezaguna den Atico de libros-ek dauka argitara emana. "Liburu zoragarria da", azaldu digu Dario Malventik, Kaxildaren sortzaileetako batek, "badirudi ez duela deus kontatzen, baina harrapatu egiten zaitu". Bertute zoragarria da liburu batentzat: piroteknia gutxiarekin irakurlea bahitzea; ez da ia inoiz gertatzen. "Kaxilda izena Soledad Casilda ekintzaile anarkistaren omenez jarri genuen", oroitu du Dario Malventik. Felix Likiniano (1909-1982) anarkista ezagunaren emazte (eta aktibistaren) izena hautatu izanak, liburu-dendaren norabidearen arrasto garbiak eskaintzen ditu: "Akrata eta feminista, besteak beste". Denda honetan, beraz, kontua ez da denbora pasarako literatura eskaintzea. "Asmoa da eskaintzea gogoetarako beta ematen duen literatura, eta, horrez gain, literatura besteekin konpartitzeko espazio bat". Italiarra da Dario, nabaria du ahoskera, eta kexu da, gaztelaniaz bai, baina euskaraz oraindik ez delako moldatzen. "Hori da nire herrena", aitortu du, "euskarazko liburuaren bilduma behar bezala kudeatzeko beharko nuke, baina talde on bat dut inguruan". Izan ere, "espazio" hitza ez da marketing hutsa Kaxildakoen izaeran. Zinez espazio bat balitz bezala daramate kudeaketa, eta, lan-gileez gain, dendan gauzak pentsatzen, antolatzen eta kudeatzen dituzten bolondresak ere badaude. Denen artean adosten dituzte dendari, barka, espazioari buruzko kontu guztiak.

Berandutu zaigunez, jaten ere geratu gara Kaxildan, menua ematen dutela baliatuz. Jatetxea beteta dago, eta kosta zaigu esertzeko toki bat aurkitzea. Menua parez pare daukagu, arbelean handiz idatzia. Ez dugu krokatarik ezta xolomorik arkituko. Liburu-denda berezia den bezala da berezia jatetxea ere. Lehenengo plater gisa tomate eta piper egosizko ostopila eskatu dugu, eta bigarren plater gisa, berriz, tofuzko *quiché*-a txanpinoi saltsarekin. Jaten amaitu orduko (zoragarri dago dena), jendea pilatzen hasi da jateko tokiaren zain (ez da harritzekoa). Kafea hartzera terrazara joango gara, beraz, jantokian lekua egiteko.

Kanpoan, pilotalekuan, jada ez dago erraketaz ari zen haurra. Hura joan da eta emakume bat dago, liburuak eskuetan, bi haur parean dauzkala baloiarekin jolasean, eguzkipean. Toki lasaia da, (betiko) geratzeko gogoia daukagu, lana amaitzeko bainoago.

Garoa

Sartu aurretik ohartu gara azken urteotan hiri handietatik etorritako *indie* mugidak kutsatutako espazioa dela Garoa, "Garoa Kultur Lab" baitago dendaren kanpoaldean idatzia, letra dotorez. Hitzak ez dira alferrik hautatzen, badute zama bat, edo lurrin bat. Eta Garoan izango duzu Bartzelonan edo Londresen zauden sentimendua; espazio handia eta argia baita, iraganeko objektuez eta irudiz apaindua. Azken hauek, geure imaginarioan dotoretasunarekin lotuta dauden irudiak dira, idazteko makina, adibidez, edota esertzeko besaulki eder bat. *Retro* erako moda halakoxea da: iraganera jotzen du teknologiaren birrintze gaitasunaren biktima izandako objektu preziatuaren edota nobleen bila. Garoaren kanpo aldean dagoen bizikletak ongi laburbildu dezake printzipio hau, han ageri da motorraren eraginez galdutako bizikletari lotutako gurdien edertasun saiata.

Bi solairu dauzka Garoak, azpikoan erakusketak egiten dituzte, eta goikoan, liburuak, tragoxka bat hartzeko mostradorea, eta lasai esertzeko lehen aipatutako besaulki zoragarriak daude. Imanol Agirrek eta Aritz Zestonak hartu gaituzte. Lehena da Garoaren sortzaileen sendikoa (semea), langilea bigarrena, biak daude oso dendaren erara apainduta, bizarrarekin eta abarrekoekin, eta ia sartu orduko garagardo botila bat jarri digute eskuetan. Berehala beren azken gutizia erakutsi digute, Garoara ekarri duten azken argitaletxea, Jakyll and Jill, ezagutzen ez genuena. Diseinu aldetik inpekableak dira liburuak; azalak, batzuk argazkiz ilustratuta, besteak marrazkien bidez. Guztiak eramango genituzke, eta,



zentzu horretan, Garoak ere (Kaxildak eta Katakrakek bezala), badu arrisku hori: ludopata batek jokorako sentitu dezakeen erakarpenerbertsoa sentitzen duzu hango liburuekiko.

Famili ekimena da Garoa, eta badu istorio hungigarri bat atzean.

Imanolek kontatu digu: "Liburu-denda ni bezain ameslaria den gure amak zabaldu zuen, 1973an. Londresen bizi zela, Foyles mitikoak txundituta itzuli zen Zarautzera, eta, familiako bodega zaharrean, liburu-denda zabaltzea erabaki zuen. Aita ezagutu zuen gerora, bertako eztabaida politiko-literarioetan, eta ordutik biek eraman zuten kultur-gunea. 2009 inguruan, ama Londresera etorri zitzaidan bisitan. Jada alzheimerria diagnostikatu zuen, eta artean Eneko anaia Madrilen zen oraindik. Nik prestatu nuen bidaia guztia, gauza garrantzitsu bat esateko, Foylesen bertan: Familiako denda nik hartuko nuela. Esan eta egin. Eneko Madril-dik itzuli zen segituan eta denda eraberritu genuen". Gerora Zarautzik Donostiara zabaldu ziren, eta bietan dabilta orain saltoka.

Hitzaldiak, liburu aurkezpenak, eta, batez ere, "paperezko kontzertuak" egiten ditu Garoak. Horretan nabarmendu dira azken urteon, eta tarteka sekulako zalaparta sortu dute ekimen horri esker. Ekimen bitxiena (edo ez), ordea, idazle batek egiten duen liburu hautaketa da; dendaren erdian daude hautatutako liburuak, mahai batean jarrita, eta baten batek hautaketa norena den asmatzen badu, liburu guztiak beretzat eramango ditu. "Garoa laborategi bat da", esan du Imanolek, "kultur esperientziak sortzeko laborategia. Guk ez ditugu bezeroak ikusten, irakurleak baizik. Guk ez ditugu ekitaldiak antolatzen, esperientzia kolektiboak baizik". Ongi sintetizatzen du azken esaldiak hiru liburu-dendetan barne egindako txangoan izan dugun sentimendua, hots, urteetan kultura bera mugitu baina kultura gordetzeko tokiak (antzokiak, liburu-dendak, erakusketak aretoak) bere horretan mantendu badira ere, dena elkarrekin mugitzen den aroan sartu garela, eta jada ez dela edukia bakarrik aldatzen, edukiontzia ere hasi direla aldatzen, eta, horrekin batera, kultura gozatzeko manera bera ere. Seguruen, aro digitalak eragindako krisiak sortutako mugimendua izan da. Azken ideia honek, ordea, beste erreportaje baterako emango liguke.

JOSE LUIS OTAMENDI

**"GAUDEN BITARTEAN BEHINTZAT, ZER
GAREN ETA ZER IZAN NAHIKO GENUKEEN
ESATEN AHALEGINDU BEHARKO GARA"**

Testua: Peru Iparragirre

Elkarriketa honetan askotan erabiliko dugun hitza da poesia, zer da zuretzat? Emango dizudan erantzunaren muina aspalditik darabildana da eta errazkeriaren kutsua ere baduela uste dut... Bizialdi honetan aurrera egiteko oso lagungarri gertatu izan zaidan makulu bat eta neurri batean, denborarekin, gauzak ikusteko metodo bat edo erne egoteko tresna oso egoki bat. Inguruan gertatzen direnak hitzen iragazkira ekarri eta poesiak oinarri moduan erritmoa eta musikaltasun maila bat baduenez, zure egia izan daitekeen hori inori erakusteko eran jartzeko ahalegin bat. Orokorrean, bizi bizi zaren aldian zeurekin bizi duzun zerbait, lagungarri bat, aldarte bat, ikuspegi bat lantzen laguntzen dizun lagun bat, ezta?





×



Etxea eta etxerako bidea?

Bai, baina kanporako bidea ere bai, askotan etxerako baino gehiago. Baina bai, frontoi efektua da: pareta jo, frontisa jo eta berriz ere zuregana dator. Gauzak ikusten ikasteko lagungarri potente xamar bat da, jarrera bat ematen dizuna, zerbait egin nahi baduzu behartzen zaituena. Kezka batekin bizitzea da, baita ere, hizkuntzaren beraren eta esaten duzunaren ingurukoa, mezua eta forma arteko tinka horretan erne egotea exijitzen dizun jardun bat neurri batean.

Lehen poema-liburua 80. hamarraldian argitaratu zenuen, Ustela sailean eta ordutik urte batzuk pasa dira. Zazpigarrena argitaratu berri duzu, poeta gisa daukazu zeure burua?

[Barreak] Kenduta noski poetak izan dezakeen kutsu esentziala, ni ez naiz poeta zentzu hanpatu horretan sentitzen. Hitzekin lanean hitzen musikaltasuna nor bere egiari eder kutsu bat eman nahian mezu bat inori helarazteko kezka horrek bizi nauenez, eta hori baldin bada poeta izatea, bada bai, denbora askoan horretan ari naizelako. Baina ez dakit zer mezu zerutiarren eroale izatea baldin bada ez, inondik ez.

Poeta zara orduan; eta poeta ez zarenean, zer zara?

Egunaren ordu gehienak, badakizu, hainbat gauza gara, hainbat erataria jokatzen dugu. Tarteka barre egiten dugu, tarteka negar, batzuetan lagunkoi eta atsegin izateko gauza bagara, beste askotan oso ankerrak eta basak izan gaitezke eta, tokatzen denean, zoriontsu ere izaten gara. Beste edozein pertsona bezala hainbat alderdi dituen tipoa naiz, lanean irakasle, etxean seme baten aita, emaztearen senar, amaren seme, anaia eta lagunarte bateko kide.

Irakasle zaren heinean, ikasleekiko harreman literariorik sortzen duzu? Historia eta Geografia poesiarekin lotzen saiatzen zara?

Ez, konpartimentu estanko moduan bizi ditut. Nire gogotik oso urruti dago poesiaren aldeko proselitismoa egitea. Ni horretara jarri naiz eta neuretzat inportantea da, baina ez dut ikusten horren apostolutza egitea dagokidanik eta irakaskuntzan ari naizenean, normalean, aparte mantentzen saiatzen naiz, alderdi hori aparteko gisa bizi dut.

Liburura itzuliz, nondik sortu da *Kapital publikoa*? Azken poema-liburutik zazpi urte igaro dira. Testuak metatzen joan zara edo propio sortutakoak dira?

Nire lan egiteko era metaketa lana izan ohi da, alde batetik metodiko xamarra izan daitekeen moduan, sarri idazten dudalako. Baina ez dut uste idazten ditudanik poema mailako testuak direnik, gehienetan apunteak dira eta gerora jartzen naizenean eta *corpus* nahikoa eduki dezakedala ikusten dudanean orduan hasten naiz ezpalak ateratzen, ardatzak zein izan litezkeen, aurrekoan esandakotik zerbait desberdina edo beste kutsurik daukan zerbait badagoen edo ez. Hori antzematen hasten naizenean jartzen naiz ezaugarri jakin batzuk dituen liburu edo sorta bat osatzera. Oraingo honetan horrela jokatu dut gehienbat. Ez da kolpe batean egindako liburua, nahiko nuke baina ez naiz horrela lan egiteko gauza.

Gai sozialez, memoriaz eta maitasunaz diharduten poemak dira liburukoak, egunerokotasunetik ateratako poesia al da?

Hein batean bai. Lehen nioen bezala, egunerokotasuna neure iragazkitik pasata. Eguneroko erreferentzia zuzenak, prentsako gertaerak eta sartzea kostatu egiten zait, ez dakidalako edo ez naizelako beharbada bete-betean horretara jarri. Baina egunerokotasunak markatzen du nire jarduna, dudarik gabe. Azken liburuetan argiago ikusten da hori, hasierakoetan modu lausoagoan agertzen zen hori. Nire idazteko era kaotiko samarra da edo, adierazten dudana, behinik behin. Tarteka irudiak, gogoetak eta kontakizunak – gutxi – konbinatzen ditut, elementu

“Askotan nik – eta beste batzuk – esan dugun bezala, ahal dudan bezala idazten dut, ez nahi dudan bezala.”

horien arteko nahasketa bat ematen da, orduan ia beti dago eguneroko errealtateko zerbaiten islaren bat. Horren inguruko gogoeta ezpalak edo printzak ere azaltzen dira eta gogoeta horren baitan askotan liriko-tasun tantaren bat edo sentimenduen ertz zorrotzen bat.

Estiloari dagokionez, ia hasieratik bertso librean eta kutsu surrealista-tako poemak idatzi izan dituzu. Hasieratik garatzen joan zaren ahots propioa mantentzen duzula esaten da, zer diozu?

Ez dakit zenbateraino den kontzientea baina beti dago, edozer dela egiten duguna, gauzak gure modura esaten saiatzeko ahalegina. Hala baldin bada, denborarekin taxutzen joaten den zerbait da, lehen aipatutako elementuen konbinazio horretan ez dakit zenbateraino den erabakigarria nire eskua. Askotan nik – eta beste batzuk – esan dugun bezala, ahal dudan bezala idazten dut, ez nahi dudan bezala. Lagun onak dauzkat eta gauzei denbora asko ematen diet. Horri esker testuak zorrotzen ahalegintzen naiz, baldarkeria zenbait, eta sasi eta lahar asko kentzeko aukera izaten dugu zorionez, bestela emaitza ez litzateke inori erakusteko modukoa izango seguru asko.

Poesiaren gaira itzuliz, zergatik poesia, zertarako?



Hainbeste urtetan eman den prozesua tarteko elkarrengana egokitzen joan gara. Narratiban saio gutxi batzuk egin izan ditut baina askoz erosoago sentitu izan naiz poesiarekin. Forma aldetik bat-batekotasun erlatibo bat eta erraztasun handia ematen dizulako eta teknikoki ere oso eskuragarri eta erraza delako era honetako testuak sortzea. Gero hortik poesia egitera iristeko beste pauso bat dago, baina lehen apunte horiek jaso eta egituratzeko teknikoki askoz errazagoa egiten zait.

Eta lekukotza, ezta?

Bai. Modu artistiko bat erabiliz bizi garen garai honen testigantza bat ematea garrantzitsua da, hemen gaudela eta geu izan nahian borroka batean sartuta gabiltzala esan, horren isla laga. Garen bitartean ahots anitzek hitz egiteak bere garrantzia baduelako, mapa kolektibo bat osatzeko bide horretan norbere ahotsez gauzak esateko ahalegin bat, norbere ahalegin eta ahalegin kolektiboa uztartze bat da. Aurrekoan irratian entzun nuen euskarari epe laburra ematen diotenak badirela baina gauden bitartean behintzat zer garen eta zer izan nahiko genukeen esaten ahalegindu beharko gara. Zorionez honek jarraitzen badu gure harria jarri dugu eta galduz gero kito, baina bizi izan garen bitartean balio izan digu. Beharbada ikuspegi oso sinplista da baina ez dut beste ezer ikusten. Gizakion aldi hau munduak izurrite edo plaga bat bezala bizi duela irakurri nuen, joango garela eta etorriko dela beste zerbait... Baina bitartean gure lekukotasuna laga beharko dugu, gure porrot handi eta garaipen txikien koska horiek erakutsi.

Poesia idatzi bai eta argitaratu ere: liburu gehienak Susa argitale-txearekin plazaratu dituzu, nola sortzen da laguntasun hori?

Nire ibilbidean oso inportantea izan zen Koldo Izagirreraren ezagupidea egitea. Oso gazte ginela, suertez, orduan ikasketak Donostian burutzen ari ginela Koldo ezagutzeko zoria izan nuen eta hasieratik babestu eta asko lagundu ninduen, bai irakurketak zirela-eta bai eta aurreneko pausoak ematen. Koldo Izagirreraren aterpe horren baitan Ustela Sailean atera nituen lehenengo biak. Niretzat oso inportantea izan zen, baita ere, Susarekin kontaktua egitea. Hasieran poema batzuk argitaratzeko hurbildu



“Kapital publikoa”

Jose Luis Otamendi
Susa, 2014

nintzen baina gerora adiskidetasun harreman oso sendo bat garatu genuen denbora gutxian. Iñigo Aranbarriren ekarpena funtsezkoa izan da nik literatura orokorrean eta poesia bereziki garatzeko garaian. Ez dakit bestela nondik segiko nukeen, auskalo. Nahiko bakarrik ibili nintzen aldi bat pasa nuen eta oso inportantea izan da niretzat taldearen aterpe hori, ez hainbeste lagunarteagatik (dudarik gabe oso inportantea den arren) baizik eta kontrasterako leku bat delako, eztabaidarako, ideiak mahai gainean jartzeko. Alderdi kritiko horri esker, nire ikuspegia askoz ere osoagoa izan da. Original bat Pamielara eraman nuen garai hartan, eta oso luzerako izango zela esan zidaten, hauekin probatu nuen eta ondo hartu ninduten Susan eta ondotik etorri zen beste guztia. Ordurako, aldizkarirako [Susa aldizkariari ari da] gauzatxoren bat edo beste egina nengoen, eta beti oso lotsatia izan naizen arren pausoa ematen lagundu zidan horrek.

Poesia musikaren eta ahotsaren bidez, kantu eta errezitaldietan ere gizarteratu daiteke.

Nabarmena da nire idazteko eran eragin erabatekoa izan duela horrek. Jendaurrean irakurtzen hasi aurretik idazten nuen poesia eta ondorengo nahiko diferentea da. Helburua bera aldatzen denez testuak ere horri erantzun behar dio. Liburura doazen hainbat poema seguru asko ez dira oso irakurgarriak jendaurrean. Bi aukerekin jokatu behar, jendaurreko *feedback*-a oso emankorra gertatu izan zait, literatur jardunean eskergarria egin zaidan alderdi bat da. Testuak moldatu beharra dago, jendea ulergarri egiteko, komunikazioa lortzeko doitu egin behar dira. Teknika aldetik lerro luzeagoko poemak edo testuak egiteko joera hartzen duzu, edo kutsu narratiboagoa izan dezaketenak edo irudiei indarra emateko errepikapenarekin jokatu, egitura borobiletara jo, kla-beak diren leloak errepikatu, tarteka gogorarazi...


Kantuak ere, baina errezitalean ez bezala kantuarena ez dago neure gain, gehienetan. Tarteka sortzen den opari edo zorte bat da, inguruko batek edo bestek jadanik idatzitako testu bat kantu baterako erabiltzen duenean edo musika batentzako letra bat eskatzean, baina beste

zerbait da. Oso letra gutxi egin ditut enkarguz, neure burua herrenago ikusten dut, ez dut dominatzen eta, gutxi jardun dudalako beharbada, galduago nabil.

Nola dakusazu gaur egungo literatura, poesia?

Euskal poesian ahots dezente daudela ikusten dut, diferenteak. Duela urte gutxi hutsune handi xamar bat egon bada ere azkeneko zortzi-hamar urteotan ikusten da badatorrela hurrengo olde edo uhin bat. Alde horretatik bizirik ikusten dut eta hori zait pozgarri, leherketa sortzailerik ez dago baina gure emana intentsitate apalekoa delakoan nago. Ahots oso interesgarriak agertzen ari direla uste dut. Oraindik landu gabe dauzkagun sektore batzuetara jauzia emateko bidean gaudela denok, hala nola feminismora. Askok oso zabar ibili gara (ni neu behintzat) sentiberatasun edo ikuspegi kamuts batekin alderdi horien aurrean. Gizarteko hainbat alorri begiak zabalik egon garen bezala ezpal hori ikusteko gaitasunik edo adierazteko talenturik ez dut erakutsi eta kezkatzen nau horrek. Lanketa egin beharra nik neuk badaukat eta ikusten da gutxi landutako alderdi batzuk edota ikuspegi batzuk ari direla han hemen gandorra erakusten.

Jendaurreko emanaldiak direla-eta sumatzen da badatorrela zerbait. Oso sintoma interesgarriak dira jendaurrean egiten diren hainbat ekimen: garai batean Literatur Eskola izan zena edo Literatura edo Eako Poesia Egunak eta beste hainbat. Literatur lubakietako jendeak sortutako gauzak direnean eta ez hainbeste ez dakit zein erakundek bere burua autopromozionatzeko egiten duenean. Hau da, lubakian dagoenak ateratzen duenean oso seinale ona da eta ikusten ari gara erantzun bat sortzen ari dela, oparoa gainera. Garai batean oso bakan egiten ziren jendaurreko emanaldiak eta gaur egun ia arrunt bihurtzen ari dira. Literatur txokoen fenomeno ere ikaragarri interesgarria da. Hein batean idazteko era, idazlearen ikuspegia zorroztea eta aldatzea, onerako, ekarriko du. Komunitatean edo tribuan lehen nolabait lotu gabe zeuden hari batzuk sortzen ari dira, aurrera begira onuragarriak izango diren sare batzuk sortuz.




La modification
Michel Butor, 1957

Askorentzat aspergarria izan daitekeela dakizun zerbaitez disfrutatzea. *Nouveau roman* puru-purua. Batere akziorik gabe nobela zirraragarria idatzi daitekeela frogatu zuen agian beste inork baino hobeto Butorrek. Espazioa eta denbora nola kudeatzen dituen egiaztatzea mirezgarria da, nola izan zen gai bere teoria narrati-boak praxi bihurtzeko. Pluraleko bi garren pertsona –orain gure singularrereko bigarreanean, alegia– erabiltzeko estrategiak pentsatzen dut liluratu egin ninduela. Eta protagonistarengandik distantzia hartze horrek, aldi berean irakurlea inplikatzeko duena. Garai batean oso maiteak nituen nobelak abandonatu egin ditut, baina *La modification* gogokoenetakoa dut oraindik.


RAMON SAIZARBITORIA

6 LIBURU MUGARRI NIRE BIZITZAN



Las inquietudes de Shanti Andia
Pio Baroja, 1911


Berdin aipatu nezakeen *Zalakain...* Gaztetxotan asko maite nuen Baroja. Berarekin hasi nintzen irakurtzen, etxean bere lanak zeudelako, eta bere nobelatan Euskal Herria azaltzen zelako, pentsatzen dut. Baina beti irakurri izan dut, tarteka. Garai batean irakurtzeko gogorik gabe sentitzen nintzen alditan, noizbehinka gertatzen baitzait hori, haria hartzeko edo, Barojarengana jotzen nuen beti. *El gran torbellino del mundo*-ren kapitulu hasieretan azaltzen diren estanpak irakurriz batez ere, berriro gogoa pizten zitzaidan. Gaztetan ez nituen Salgari eta horiek irakurri; ez zitzaidan gazteentzako literatura esaten zaiona gustatzen. Errealismoa gogoko nuen. *Maribeltxa* eta *Elogio sentimental del acordeón*, bezala, ezaguna nuen giroa deskribatzen zuten ipuinak miresten nituen.



Krimena eta zigorra

Fiodor Dostoievski, 1866

Barojak Dostoievskirengana eraman ninduen. Askok maite izan nuen gaztetan eta *Krimena* batez ere zirraragarria gertatu zitzaidan. Hausnarketa sakonak esango nuke egin nituela Rodion Romanovitx Raskolnikoven inguruan eta nori galdetu ez nuen kezka sortu zizkidalako. Nahiago izaten nuen Dostoievski irakurri eskolako patioan jolasean ibili baino eta asko isolatu nintzen garai hartan. Ez dakit zenbat urte izango nituen, gutxi. Dostoievskirengana ez naiz bueltatu izan Barojarengana bezala. Orain ez dut maite.



Stiller

Max Frisch, 1954

Aurreko tituluen eta autoreen ordeaz aukera nitzakeen beste hainbat, baina Max Frisch, inongo zalantzarik gabe, gehien maite dudana idazlea da. Hori bai, *Stiller* bezala aipatu nezakeen *Homo fabber*, baina nik uste Stiller-en dagoela Frisch guztia, humorea, imaginazioa, kritika soziala, nazionalismoaren kritika, nobelaren nobela, nobelaren barruan nobela egiteko gaitasuna. Gaztaroan, lehortetan, Barojarengana bueltatzen nintzen bezala, Frischengana jotzen dut orain. Dena den, beste batean, beste zerrenda bat osatuko nuke eta oraintxe bertan gogoia ematen dit aurrekoa ezabatzeko, Montaigne, Flaubert, Södeberg (*Doctor Gas*, noski), Joyce, Bassani (*Fizzi Contini*), Roth (*Pastorala*, batez ere) eta aldiro birbisitatzen ditudan zenbait idazleri lekua egiteko.



Malone meurt

Samuel Beckett, 1951


Absurdia ez zait gustatzen eta garai batean gutxiago. Gaztetan Jarrai antzerki taldean ibili nintzen eta abangoardista izan beharra zegoenez Ionesco, Pirandello, Durremat Beckett eta konpainiaren ezagutza egin nuen. Askok disfrutatu nuen, nola ez, Becketten Godot itxaroten lehendabizi irakurtzen eta ondoren antzezuta ikusten baina maisu irlandarra teatrogile bezala ezagutzen nuen bakkrik. *Ene Jesus* argitaratzeaz irakurri nuen *Malone*, alegia nik neuk ahal izan nuen moduan –modu dorpean– Beckettek maisuki eginiko bidea egin ondoren. Aitorpen hori egiteko nire pertsonai bati Samuel izena emateko aukera izan nuen baina traumatikoa, umiliagarria, gertatu zitzaidan, hainbeste nekeren ordainaz asmatzea lortu nuen bolbora, aspaldi asmatuta zegoela egiaztatzea. Pasa zait eta orain harro nago, nolabait ere, neure laborategi txiki eta xumean, neure kabuz bolbora asmatzeko gai izan nintzelako, jada asmatuta zegoela izan bazen ere. Nolabait esateko pozik nago, neure baitan Beckett handiak izan zituen arazo eta konponbide literario bertsuak landu nituelako neuk ere.





Le voyeur

Alain Robbe-Grillet, 1955

Objetibotasuna, distantzia, zientifikotasuna. Ez dut maite jada, baina bere garaian asko lagundu zidan eta asko disfrutatu nuen berarekin. *Pour un nouveau roman* biziki interesgarria gertatu zitzaidan eta, Butorren kasuan bezala, ikusgarria da nola batzen dituen praxia eta teoria. Pikutara XIX. mendeko nobela, orain osteria liburudendetara itzuli dena. Balzacetik Flaubertera doan bidea azken muturreraino luzatu zuen nolabait esateko, gehiegi ere, ziur asko. Esan bezala, zaharkitu egin dela deritzot, Sarraute, Duras eta beste asko bezala, baina egun teknika narratiboa zaindus idazten duen edonork zor dio zerbait Robbe-Grilleti, eta beste askok ere bai, konturatzen ez badira ere.



KATIXA AGIRRE



**“IPUINETAN, BEHARBADA, ESPERIMEN-
TATU DAITEKE GEHIAGO, NOBELA BATEAN
BERRIZ, EZ.”**

Testua: Yurre Ugarte

Katixa Agirre *Atertu arte itxaron* (Elkar) nobelarekin itzuli da aurten helduen literaturara, 2007an *Sua falta zaigu* (Elkar) eta 2009an *Habitat* (Elkar) narrazio liburuak kaleratu ondoren, azken urteetan haur eta gazteei zuzendutako liburuak idatzi baititu. Egun, EHUko Ikusentzunezko Komunikazioaren Fakultatean irakasle diharduela, hurrengo nobela baterako haziak ereiten dabil.



Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Betidanik izan dudan zaletasun bat da, ez daukat momentu bat errebelazio batekin edo, beti izan naiz irakurzalea, oso txikitan hasi nintzen asko eta asko irakurtzen, eta, modu naturalean, irakurtzen nuen bezala idazten hasi nintzen, ez daukat errebelazio baten historiarik.

Ikasketak aukeratzera koan zaletasun horrek baldintzatu zintuen?

Bada, bai, aukeratu nuelako Ikusentzunezko Komunikazioa, gehien bat gidoigintzari begira, pentsatuz hori zela irteeretako bat. Urte askotan kazetaria izan nahi nuen eta Kazetaritza ikasteko asmoa nuen, baina, azkenean, oso diferentea ez den arren, zinema eta telebistarako idaztearen ideiak erakarri ninduen gehiago eta horregatik aukeratu nuen Ikusentzunezko Komunikazioa, nahiz eta, gero, gidoilari moduan apenas lanik egin dudana.

Ikusentzunezko Komunikazioan doktoratu zinen.

Bai, arlo akademikoa aukeratu nuen, unibertsitatean geratzea erabaki nuen eta nire karrera ikerketara bideratzea, eta horretan nabil. Pena da denbora gehiegi kentzen didala, geroz eta gehiago, ze, mundu akademikoa sartzen zarenean, sartzen zara horrelako gurpil zoro batean zeinean beti produzitu behar duzun... Horregatik deitzen zaio "karrera" akademikoa, beti korrika zabiltzalako, ezin ailegatu. Esan dudana bezala, pena da denbora asko kentzen didalako idazteko, baina aldi berean gustatu egiten zaidanez...

Literatura lan bat du abiapuntu zure doktore tesiak, Vladimir Nabokoven *Lolita* (1955)...

Bai, Nabokoven sorturiko pertsonaia horretatik datorren mitoa gaur egungo kultura mediatikoaren mito bezala ulertu eta aztertu nuen Hollywoodeko filmetan. *Lolita* izena ez daramaten baina mitoa pertsonifikatzen duten pertsonaiak dituzten film garaikideak aztertu nituen: *American Beauty*, *El cabo del miedo*, *Hard candy*, etab... Nabokoven nobelako *Lolita* pertsonaiak izena eman dio pertsonaia mota bati, eta horren arabera, *Lolita* da neska gazte nerabe bat gizon helduak seduzitzen dituen, erabiliaz inozentzia eta emakume helduaren manierak, konbinazio horrekin. Kontua da Nabokoven nobela irakurtzen baduzu, *Lolita* 12 urte dituela, ez dela nerabea baizik eta ume gorputza daukan pertsona. Gizonak *Lolita* ren amaren heriotza probokatzen du eta bidaia batean zehar darama *Lolita*, bahituta, eta gauero bortxatu egiten du. Liburuan garbi adierazten da nola *Lolita* negar egiten duen gauero. Istorio terrible bat, non neska gazteak gizonaren atzaparretatik ihes egiten duenean beste pederasta baten besoetan erortzen den. Nobelaren inguruko kritikak edo komentario askok eta askok diote "maitasun istorio" bat dela, gizon heldua gaztetxoaren maitasunagatik zoratuta dagoela. Beraz, gauza bat da nobela, eta beste bat horren gainean eraiki den mitoa, guk, gizarte patriarkal misogino moduan sinetsi nahi dugun mitoa: neskak seduzitu duela gizon heldua modu diabolikoan eta hori guztia... Liburua irakurtzen duenari oso argi geratzen zaio benetan zer gertatu den. Horregatik egiten zitzaidan oso interesgarria nola gure gizarteak moldatu duen nahieran Nabokoven lan literarioa. Nola gure gizarteak zurrizten duen pederasta baten jarrera, nerabearen kaltetan. Nola gizona bera den botere posizioan dagoena eta probestu egiten duen, neskarekin nahi duena egiteko. Eta interesatzen zitzaidan zineman hori nola gauzatu den.

EHUn irakasle zara; nahiko zenuke idazle profesional izan, alegia, soilik idaztetik bizi?

Idaztetik bizi, segun zer den idaztetik. Literatura idaztetik bada, bai. Bestela, idazle profesional izatea, egia esanda, ez, ze idazle profesional direnak, badakit nola ibili behar izaten duten, zutabeak idazten, boloak bila-

"Badago euskal literaturan, gizartean bezala, halako paternalismo bat, gizonei suertatzen ez zaiena. Eta kasurik txarrean misoginia dena."

tzen etengabe, hitzaldiak ematen, azkenean energia pilo bat joaten zaizu horretan, zerbaiten bila, eta lan horiek egiten, berez literatura lanak ez direnak, baizik eta literaturaren inguruan daudenak eta egia esanda, horrek ez nau erakartzen gehiegi. Bai hartuko nukeela eszedentzia bat liburu bat idazteko, urtebete idazten jarduteko, oraindik ez dut egin baina ideia bat badut nobela baterako. Urtebete hartu eta nobela horri dedikatu, hori oso plan ederra iruditzen zait. Ordea, autonomia izatea eta beti lan bila ibiltzea, ez. Gainera, badauket etxean nire bikotekidea [Jon Bilbao, Ribadesella, 1972] horrela dabilena, eta etxean biak horrela aritzea, bada ezingo genuke.

Lehenengo liburua, *Sua falta zaigu* (2007) narrazio osaturiko liburua, nola sortu zen?

Hogeita piko urte nituen eta adin horretan ipuinak idazten nituen, lehiaketara bidaltzen nituen. Ikasle nintzenez, oso presente nituen lehiaketak garai hartan, diru iturri bat ere baziren. Gauzak horrela, baneukan ipuinen bildumatxo bat. Gertatu zena izan zen bazegoela nobela laburren lehiaketa bat Ondarroan, oraindik existitzen dena, Agustín Zubikarai nobela laburren lehiaketa eta hartu nuen nire ipuinetako bat eta luzatu egin nuen nahiko modu artifizialean nobela labur bihurtzeko. Handik hilabete batzuetara deitu zidan etxera Elkar-eko editore Xabier Mendigurenek. Nik pentsatu nuen deitzen bazuen lehiaketa irabazi nuelako izango zela, baina ez zen hala. "Ez duzu irabazi baina interesgarria egin zait zure lana", esan zidan, uste dut zerbait gehiago eman dezakezula. Ipuin gehiago nuenean, bidaltzeko eskatu zidan. Hala, hasi nintzaion nire ipuin batzuk bidaltzen, berak bere ekarpenak egiten zituen eta heldu zen momentu bat non editoreak ikusi zuen bazegoela *corpus* bat liburu baterako, eta horrela sortu zen *Sua falta zaigu*, 2007an.

Bigarrenago handik bi urtera argitaratu zen, *Habitat* deiturikoa, baita ere narrazio liburua. Garai hartan ipuinetan zinen zentratua.

Bai, hala da, garai hartan ipuinak sortzen zitzaizkidan, igual gogoan banuen zerbait luzea egiteko baina ideia hain handi bat, artean ez nuen. Ipuin formarekin etortzen zitzaizkidan ideia guztiak eta tira, horrela ekin nion *Habitat* idazteari, Igartza Saria eskuratu ondoren.

Egun, atzera begirata, nola ikusten dituzu bi narrazio liburu horiek?

Nik uste liburuok idatzi nituen garaian nire onena eman nuela. Aldi berean, noski, askoz hobeto egin nitzakeela ere ikusten dut, baina ez didate lotsarik ematen [barre egiten du]. Harro ez nago, baina horixe uste dut, bai, bere momentuan eman behar nuena eman nuela. Egia da garai hartan banuela publikatzeko grina hori: publikatu, publikatu, gaztea zarenean presa daukazu, ez dakit zergatik, gazte guztiek daukate, kontrakoa izan beharko litzatekeen arren. Presa hori nuen publikatzeko, bai, nire buruari demostratzeko idazle nintzela. Orain, aldiz, ez dut. Urte pila bat pasatu dira nobela argitaratu dudana arte eta agian beste 7 urte igaroko dira hurrengo argitaratzen dudana arte, eta ez zait inporta. Garai hartan, aldiz, bai.

Habitat argitaratu zenean, sailkatu zintuzten 1980 urtearen inguruan jaiotako "emakume idazleen" taldean, ezaugarri komun batzuek zenituztela medio: kazetaria eta emakumea, Igartza saria jasotakoak... Gainera, antzeko estetika planteamenduak eta kezak omen

zenituzten. Denborak aurrera egin du, zertan geratu da hori?

Iruditzen zait genuen ezaugarri komun bakarra zela neskak ginela eta hori, garai hartan, emakumezko idazle izatea, berritasuna zen. Horregatik, bitxikeria moduan talde batean kokatu gintuzten denok, baina ez dut uste justua denik esatea denak gauza bera egiten genuela, ez dago konparatzerik Uxue Alberdik egiten duena Eider Rodriguezek edota nik neuk egiten dugunarekin. Hemen bizi garelako planteamendu estetiko berdinak ditugula esatea ez da justua, gizonezko idazleak hartu eta konklusio berera helduko ginateke. Nire ustez, argi eta garbi kutsu hori zeukan iritzi horrek: "Emakumeak dira, arreta eragiten dute, orduan talde batean sartuko ditugu". Oraindik orain galdetzen didate talde horri buruz! Ez ginen talde eta ez ginen hainbeste emakume! Gaur egun antzekoa gertatzen da, nik udaberrian argitaratu dut nobela eta izan naiz emakume bakarra, argitaratu diren gainerako nobela guztiak gizonezkoenak dira. Beraz, egun, gutxiengo gara, ez gara ez asko eta ez gehiegi... Askoz gehiago egin behar dugu.

Alertu arte itxaron, aurten argitaratu duzun zure lehenengo eleberrriaren kontrazalak dio: "Road movie antzeko bat EHan barrena" Zergatik aukeratu errepede nobela baten kontzeptua?

Baliabide asko eskaintzen zizkidalako. Bidaiaren ideia berez erakargarria egiten zait niri. Bikote bat errepedean eta ea nora doan, hori niretzat, berez, interesgarria da. Gero, Euskal Herriari buruz hitz egin nahi nuenez, ondo zetorkidan bi pertsona horiek toki batetik bestera mugitzen aritzea, Euskal Herriko aspektu ezberdinak azaleratzeko, autoak aitzakia ematen dit Euskal Herriko bideetan barrena ibiltzeko. Bidaiaren beraren metafora ere interesgarria da, zuzena eta argia, kontatu nahi nuenerako, perfektua, nire ustez.

Errepede bidaia BMW batean, ia goi mailako klaseko bikote baten errepede bidaia, alegia. Unibertsitate giroko pertsonaiak...

Bai, baina goi klasekoak dira ez unibertsitatean lan egiten dutelako baizik eta gizonari familatik datorkiolako, batez ere gizonezkoa da pijo bat eta, ondorioz, pijoek gustuak ditu. Eta bai, alde horretatik nobela nahiko azpimarratuta dago klase sozialarena, ze iruditzen zait dela gai bat oso inportantea, bizitza erabat baldintzatzen duena, baina gero horri buruz ez dugu asko hitz egiten, badirudi tabu bat dela. Bikote honek ez du diru arazorik, batez ere gizonak gustu garestiak ditu, jatetxe onetan jatea gustuko du etab. Eta hasieratik nahi nuen horrela. Aldi berean, klase horretako pertsonaiak askatasuna ematen dit nobela nahierara antolatze muga materialei dagokienez behintzat, halako hotelean egoteko etab.

Harremanen nobela bat ere bada. Ezer falta ez zaion bikotearen harremanak pitzadurak ditu...

Ikusten ditudanean klase "apaletako" pertsonaien filmak, azkenean haien arazoak superbibentziazkoak dira. Eta aldiz, materialki bizitza konponduta daukatenen arazoak bihurri eta konplikatukoak izan ohi dira. Superbibentziarako borrokan denok izan gaitezke berdintsuak, baina materialki ez zaizunean ezer falta, gu guztioi gertatzen zaigun moduan, orduan hasten dira bueltak eta errebueltak, psikologikoki askoz interesgarriagoa egiten zait.

Eta hortik datoz harremanetako pitzadura klasikoak: komunikazio falta, sekretuak, hirugarren pertsona bat...

Bai, beste pertsona baten agerpena, harremanaren baitako sekretuak daude. Bikotearen barruan zelan orekatu zure barruan gertatzen dena, zenbat den zurea, zenbat biona, oreka nola lortu. Euskal Herrian zehar egiten duten bidaia honetan azaleratzen dira sekretuak gutxinaka

"Euskal gatazkaren" alde ezkutuak eta ageri-agerikoak islatu nahi

izan dituzu.

Ezkutuak ez dira, ze guk guztiok bizi izan ditugu gertu-gertutik, batzuek oso-oso gertutik, baina bada errebaso antzeko bat, perspektiba apur batekin, distantzia horrekin, ze joera dugu esateko "gauzak oso konplikatua direla" eta batzuetan ez dira hain konplikatua, badaude oinarritzko gauza batzuk oso sinpleak direnak. Nobela umeen kontrako atentatu batez hitz egiten da, fikziozko atentatu bat da, baina benetako atentatuaren oinarrituta dago, zeinetan umeak hil egin zituzten, guardia zibilen umeak, handik pasatzen zirenak... hori ez da batere konplikatua, ezin da horrelakorik justifikatu eta kitto.

Errepede bidaiak musika klasikoaren mundura bide zidor bat hartzen du.

Bai, beste garai eta leku batera, XX. mendeko 20-40 hamarkadetara, AEBetara eta Erresuma Batura, eta Benjamin Britten konpositorearen gaztaroa kontatzen da. Aitzakia da neska protagonista doktore tesia egiten ari dela Britten eta pazifismoaren inguruan, orduan Brittenen bizitzaren pasarteak kontatzen dira, bakezaletasunarekin harremana dutenak, haren jarrera morala, zer ondorio izan zituen hartu zuen eragozle jarrerak gerra garaian, horren inguruan.

Zergatik Benjamin Britten musikaria?

Aspaldi ezagutzen dudana pertsonaia da, txikitan bere obrak kantatu nituen nik ere, protagonistak bezala, eta bere garai historikoa oso interesgarria egiten zait. Biolentziarekiko jarrera oso erradikala zuen, erabat errefusatzeko zuen, baina aurrez aurreko edozein enfrentamendu ekiditeko punturaino: norbait kaleratu behar bazuen edo norbait ezetz esan, beste norbait bidaltzen zuen berri txarrekin, bera ez zen gai. Eta horrek eraman zuen kontzientzia eragozle egitera, eta bere belaunaldi bereko gazteek Hitlerren aurka borrokatzea jotzen zuten bitartean, bera musika egiten geratu zen. Muturreko jarrera horrek ere pentsarazten dit noraino diren zilegi horrelako printzipio mugiezinak, noraino den zilegi zure aurka ari direnean zu besoak antxumaturik geratzea, jakinda beste batzuk joango direla borrokara zure partez, jakina.

Zure kontamoldean, estiloan, ulergarria izateko ahalegina gailentzen da, komunikabideetan erabiltzen den hizkuntzatik hurbil dago...

Bai, estilo zuzena eta azkar sartzen dena, bai, hori beti daukat kontuan. Normalean ahots gora irakurtzen dut idatzitakoa, jakiteko ea modu naturala, ondo eta erraz sartzen den belarrietatik.

Uste duzu oraindik orain emakume idazle edota sortzaile batek errekonozimendua lortzea zailagoa duela?

Segun errekonozimendua zer den, argitaratzea edo hedabideetan presentzia izatea bada, ba ez. Baina badago euskal literaturan, gizartearen bezala, halako paternalismo bat, gizonei suertatzen ez zaiena. Eta kasurik txarrean misoginia dena. Hori argi eta garbi ematen da, eta ezin da ukatu. Eta sorkuntzako arlo guztietan ematen da, arazo estrukturala delako. Egia da emakume batzuk ukatu egiten dutela, inori ez zaiolako gustatzen biktima izatea, eta emakume askorengatik badago negazio puntu hori, baina atzera eginda eta perspektiba batekin ikusita, nik uste oso argi geratzen dela. Askotan detaile txikitxoak dira, ohituta gaude, baina hor daude, agerian uzten dute emakumeen bigarren mailako presentzia.

Zure ustez, zertan datza istorio handi bat idazteko gakoa?

Denbora asko izatean eta disziplinan... Eta abandonatzen ez zaituen ideia bat behar duzu. Nire beldurra zen ideia honekin noraino helduko ote nintzen, ez ote ninduen ideiak erdibidean utziko. Eta ez da hala izan. Aspalditik badaukat beste ideia bat, hor daukat, utzita, ea mantentzen den nire alboan. Eta, alde egiten badit, ez da izango nobela.

A woman with dark hair, wearing a dark suit, is shown from the chest up. She is holding a glowing orange string with both hands, and several other similar strings are visible in the background, creating a sense of depth. The background is solid black.

ANOMALIA ZORAGARRIA

EAKO POESIA EGUNAK

Testua: Lander Garro





Jose Luis Otamendi

Anomalia zoragarria. Bi hitz horiekin definitu zituen Antonio Casado poeta errenteriarra Eako Poesia Egunak. Eta seguruenik arrazoi izango zuen: nahiko aldrebesa da poesia maitatzea. Are aldrebesagoa, oraindik, poesiaren alde, edo poesiaren bueltan asteburu oso bat antolatzea. Baina Ean urtero egiten dute, eta urtero biltzen da jende aldrebes mordoxka bat.

Ekainaren erdialdean izaten da, bigarren asteburuan, eta poesiaren bueltan hamaika ekitaldi antolatzen da: errezeitaldiak, hitzaldiak edota musika saioak. Horrela esanda, ekitaldi arrunta dela esango luke baten batek, baina hasieran esan dugu, arruntetik gutxi eta anomalotik asko daukala. Ea lerrootan zergatia azaltzea lortzen dugun.

Azalpenak ematen hasita, Ea zer den ere esan beharko genuke. Hura ere anomalia zoragarria ote da? Beharbada bai, dena eskura dagoen mundu honetan hain eskura ere ez dagoelako (Bizkaiko kostan dago, Elantxobetik gertu), eta kostaldekoa (eta nahikoa paradisuzkoa) izanagatik, udan ez delako udatiarrez betetzen. Bilbotarrak omen dira udan han azaltzen diren turistetako asko, baina nekez izango duzu Ean trasatlantiko batek 3.000 (edo 20.000) turista bertan utzi eta alde egin duen inpresioa. Ea ez da Hendaia.


Ea, beraz, urrun dago, eta urrun dagoen orok gordetzen du berezko zerbait, nortasun amirri bat kanpotik etorritakoari segituan deigarri egiten zaiona. Nortasuna ez da uki daitekeen gauza bat, ez da goiburuak betetzeko bezain inportantea, baina nortasun horrek eatarrei balio die, esaterako, herriari dagozkion kontuetako asko auzolanean egiteko, ezberdintasun politiko oro alde batera utzita, hurkoa beti izango baita, ongi ikusita, asmo politiko ororen printzipio goren. Eta balio die, noski, Poesia Egunena bezain ekitaldi anomalo eta zoragarria antolatzeko.

Poeta batengandik gertu egoteko ezinezkoa da Eako Poesia Egunak baina ekitaldi egokiagorik aurkitzea. Eta ez duzu, gainera, harekin enkontrurik programatu beharko. Ez duzu beharko ez emailik, ez telefono dei urduririk, ez liburu sinaketa patetiko samar horietako bat ere. Sinpleki, herrira sartuko zara eta lehen tabernan Iñigo Aranbarri eta Castillo Suarez aurkituko dituzu hitz soltean. Ez dira, ez poeta gisa, ez eta udatiar gisa ere arituko: antolatzailleetakoak dira. Poetak dira, noski, eta poeta gisa behin baino gehiagotan jardun izan dute Ean. Eta hain geratu dira (ziren) ekitaldiarekin liluraturik, laguntzaile itzuli nahi izan dutela, inoiz ekitaldiak haiengandik egin zuena ekitaldiari trukean itzultzearren. Eta han izango dira, eta han daudenez haiekin hitz bat edo bi dozena trukatu ahal izango dituzu. Ze Eako egunek badute beste ezaugarri bat oso garantzitsua ikuspegi horretatik: ikuslea ere, ekitaldiaren parte bilakatzen dela amaierarako.

Izan ere, askok eta askok, eta honetan Earen urruntasunak ere badu zerikusirik, hainbat egun ematen dituzte bertan, ekintza zehatz bat ikusi beharrean, dena (edo bakarren batzuk) ikusteko. Kontua ez baita, azkenerako, emanaldi hau edo beste ikustea, baizik eta Eara joatea eta han geratzea. Izaten da ekitaldi bat besteen gainetik ikusi nahi zenukeena, estreinaldia delako, edo azkena delako eta Ean bakarrik ematekoak direlako, baina hura aitzakia baizik ez da izaten, behin hara joanda, han geratzeko (ahal izanez gero).

Eta hain zuzen horregatik, hainbat egun joan zarelako gertatuko zaizu poeta hori edo beste musikari hura behin eta berriz gurutzatzea Ea den herri nimiñoan, tabernan ez bada moilan, moilan ez bada hondartzan, eta, hondartzan ez bada, gaueko ordu txikietan (han izaten baita bereziki poeta jende eta jende aldrebes eta anomalo oro).

Esaten da, eta hau ez da tontakeria, Eako gauean pasatzen dena han geratzen dela betiko. Literatura berez da mundu txikia, eta mundu txikietakoz errepideak oso izaten dira estuak: horregatik da literatura hain mundu lehiakor eta konspirazioz bete: ez dagoelako tokirik denen-



tzat. Eako egunetako gauek badute gatazka amaigabe horien berri, han ateratzen dira kontuak, horietatik asko onak eta beste asko gaiztoak, horietako asko lagunari lausengua botatzeko eta beste asko ez dagoenaz gaizki esaka jarduteko. Bizilegea da. Baina legea da, baita ere, han esaten dena ez dadila inoiz handik atera. Edonola ere, Eako poesia egunetan maiz izan den horrek geure herriko poeta asko eta askorekin (ia guztiekin!) dantza egiteko aukera bat baino gehiago izan duela esan daiteke, inor mintzeko eta sekreturik hausteko beldurrik gabe. Baina ez hori bakarrik. Lehen ere esan baitugu, Eara doana han geratzeko joaten dela. Alegia, han bizitza egiteko. Eta bizitza egitea esan nahi du Eako poesia egunetatik kanpo unetxo bat edo bi pasatzea, esaterako bainu bat hartzen edo familiarekin paseatzen. Orduan goizean ikusten duzu poeta bat errezeitatzen, edo aktore bat taula gainean, eta handik ordu batera ikusten duzu hondartzan oina itsasora sartzeko keinu batere lirikarik gabe, jarrera ia domestiko bat erakutsiz, kasik *voyeur* bat bazina bezala, eta konturatzen zara haren bizitzan sartu zarela, nahita edo nahi gabe, eta hark nahi izan duela edo behintzat utzi egin dizula. Edo akaso Ea bera izan dela, bere urruneko nortasun arraro horrekin, badauka eta berez garaiak diren murrak murrizteko halako gaitasun bat, sorginkeria ere dei dezakeguna. Eta hantxe zaudete: ozeanoa, poeta, bere oina. Eta gorputzak hotzaren aurrean izan ohi dituen erreazio ez oso estetikoak.

Ez gara poesiaren txikitasun erlatiboaz mintzatu. Ez gara, ezta ere, euskal kulturaren txikitasun erlatiboaz mintzatu. Biek daukate antzekotasun bat: ezin dira tamainagatik neurtu. Ez dago edertasun txikirik. Edertasuna edertasuna da, eta tamainak onartzen ditugun arren, hau da, batzuen (beste batzuen) edertasun liluragarria onarturik ere, ezin dugu esan geurea, geure kulturarena eta poesiarena, txikia denik. Ez dauka besteen proiektzio soziala. Ez du horrenbeste dirurik ematen. Baina ez da txikia. Ikusi besterik ez dago Eako aretoak zein txiki geratzen diren, nola betetzen dituen jendeak korridoreak, eskailerak, aterpeak, dena halako irrika batez, eta dena... eskukada bat metafora entzuteko! Maialen Lujanbiok hitzaldia eman behar du aurki, 11:00etan, moilan bertan dagoen Eskolondo kulgurguneko lehen solairuan. Ez da areto

handia, baina izan dezagun kontuan Eak mila biztanle ere ez dituela. Ordu laurden lehenago apenas ageri da inor, eta elkartzen diren apurrek elkarri galdetzen diote, ea azalduko ote den inor; "Euskal Herrian zaude, mundu guztia azaltzen da azken segundoan", dio batek, eta denek barre egiten dute. Eta halaxe da, 11:00ak jo orduko, bazter guztietatik azaltzen da jendea, saltaka ia denak (berandu datoz!). Aretoaren kanpoan zain geratzen gara, kuxkuxean. 11:05etan aretora igotzen gara, eta, iris-terako, esertzeko tokirik gabe geratu garela ohartzen gara. Maialen Lujanbioren hitzaldia Iñigo Aranbarrik aurkezten du, adi ditu ikusle guztiak, horietako asko aski ilustreak gainera: Karmelo Landa, Jon Benito, Danele Sarriugarte, Eider Rodriguez... Maialen Lujanbiok poesiararen eta bertsolaritzaren harremana aztertu xede duen hitzaldi mamitsua eskaintzen du, oso berea duen seriotasun umoretsu horrekin, han eta hemen ziztadak joz, beti ere errespetuaren muga eskrupulosoan barruan, fin eta dotore. Entzuleek ez dute hitzik galtzen, areto beteegiaren barruan jendea zutik eta izerditan dagoen arren.

Maialen euskal literaturan aski topikoa den kontu batez ari da, eta horregatik piztu du arreta, bestela ere piztuko lukeen arren. Arreta eta morboa, literato askoren kontua izaten baita bertsolariek izan ohi duten arreta *gehiegizkoa*, eta bertsolariek, oro har, zein joera izaten duten berenak ez diren kultur jardueratan murgiltzeko, literatura, kasurako, (eta baita beste asko ere). Maialenek, bere hitzaldi mamitsu eta adibideetan aski oparoan, bertsogintzak eta literaturak topo zenbatetan egin duten kontatzen du, alegia, zenbaterainoko antzekotasuna daukaten. Heterodoxia berezkoa duenez, ordea, bertsolaritza eta literatura zertan diren ezberdin, hori ere aitoritzen eta azpimarratzen du.

Ekitaldia amaitu baina lehenxeago atera gara, eta atera orduko jabetu gara hitzaldiak zinez sortutako ikusminaz, gu barruan geunden bitartean jendea ailegatuz eta pilatuz joan baita aretoaren kanpoaldean lehenik, eta aretorantz doazen eskaileretan gero: ekitaldia jarraitu ahal izateko pantaila besterik ez zen falta, futbol ospakizun handietan bezala!

Guztiak elkarrekin

Bi herri ditu Eak, Ea den herriaren barruan: bata itsas goran, eta bestea itsas behean. Lehenean itsasoa ikusten da moilatik, maiteminduk hari begira esertzen dira eta haurrek itsasora salto egiten dute, gurasoen zuhurtzia abisuei kasurik egin gabe. Arrantzaleak txalupa txikietan ateratzen dira itsas gora dagoenean, aparejuak eta bestekoak ongi prestatu eta gero, otarra betetzeko esperantzaz. Herri bat da, bere fisionomiarekin, bere historiarekin eta bere logikarekin. Itsas behera dagoenean, ordea, baten batek bainuontzi handiaren tapakia kendu izan balu bezala, Ea hustu egiten da, literalki hustu ere. Eta hor beste herri bat agertzen da aurrekoarekin antza handia daukana, kointzidentzia ugari, baina ez dena herri berbera. Zeren eta orduan herria, eguraldiak hala nahi badu, lehen itsasoa zegoen tokira joango da paseatzera, herriko alameda balitz bezala, edo bulebarra, eta ibiliko dira harrien eta itsasoaaren joanak utzitako itsasontzi biluztuen artean, orain oker-oker eginda daudenak, desanparatuta hondar gainean, lehorraren ezerosotasunean, lekuz kanpo. Eta orduan Eako moilatik jada ez duzu itsasoa ikusiko, ikusiko duzu jendea pasioan, eta ezagunak dituzunak agurtuko dituzu, eta txutxumutxuan aritu ahal izango zara, herriko plazan egiten den bezala.

Gaua heltzeaz denean Anariren kontzerturako prestaketak egiten ari dira. Eguraldiak beltzera egin du, ordea, eta inork ez daki kontzertua egin ahal izango den. Anari bera ikusten dugu orain oholtza baldarki estaltzeko lanetan ari diren lagunekin tratuan. Behin-behineko karpa modukoa jarri nahi diote, euria egiten badu, jendea ez, baina behintzat taldea babestu dadin. Bi mutil dabilta soka batzuekin oihan handia lotzeko lanetan, baina handik estalki ganorazko bata aterako ote den ez



du inork sobera sinisten. Hantxe daude, poeta, idazle, musikari, antolatzaile, eta, haien artean, hondartzan jolasten ari diren haurrak, tarteka kuxkuxean gerturatzen direnak. Intriga argitu aurretik Metrokoadro-kakoen *Su izan nahi: hildakoak, senideak eta maskotak* antzerkia ikustera joango gara gu, berehala Eskolondon hasiko dena.

Metrokoadroak (Mikelazulokoak direnak) ikuskizun surrealistik egiten izan dituzte, non errealitateak, irudimenak eta absurdoak bat egiten duten. Ia beti modu komiko batez, Oier Guillanen testu bitxiak egunero-ko bizitzari atzaparkadak ematen dizkiote, baina egoerak muturrera eramanez, eta ia onirikoak diruditen irudiak tartean sartuta. Logika narratibo apetatsua darabiltenez, ez ezazue hasieratik amaierara taula gainean azaldu eta elkarren eraginez garatzen diren pertsonaia sorta baten istorioa itxaron. Ez dago horrelakorik. Esketx moduan antolatuta, bizitzaren paradoxak eta antzerkiaren lengoia oso ongi uztartzen dituzten istorioak kontatuko zaizkigu, ia denak barrez lehertzeko modukoak. Berezi barregarria iruditu zitzaigun Oier Guillanek ikusleen artean bere hildako lagun bat deskubritu usten duen unea, eta, bere laburrean, antzerkiaren filosofia ongi laburbiltzen duena: bizitza, heriotza, umorea, nahasmena, ametsak...



Eta ametsetan gaudenez, irudiak eta soinuak nahasten diren eremuan, hara non hasi garen kanpotik nonbaitetik Anariren doinuak entzuten. Albiste pozgarria da, azkenean karpa jartzea lortu duten seinale. Baina jaistean ohartu gara azkenean ezetz, azkenean Eskolondon bertan, arkupeetan ari direla jotzen. Iritsi garenerako, eginda dago musikarien eta entzuleen arteko komunioa. Anari kantuan ari da, eta batzuk lu-rrean eserita besteak zutik, denak ari dira kantuan. Ozta 10 minutu dira kontzertua hasi denetik, eta berandu datorrenak badaki komunio horren ikusle soil izateko egokituko zaiola. Azken diskoko kantuak jo ondoren, kantu zaharrekin hasi da. Gero eta aurrerago, beroago, emanago dago jendea. Anarik mikro bat jarri du ikusleei begira, eta hiru lagun hasi dira kantuan, idazlea bata, artista bestea, eta aktibista hirugarrena. Ezagutzen ditugu haien izenak, baina gaua da, eta, badakizue, Ean gauez gertatzen dena, Ean geratzen da. Legea da, ez dugu geuk urratuko.



1. Maialen Lujanbio eta Iñigo Aranbarri
2. Maialen Lujanbioren hitzaldian, entzuleak aretotik kanpo.
3. Josu Landa.
4. Anari.
5. Tenpora musika taldea.



HEGATS




DIM
A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z
a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x y z
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9

Bodoni Antiqua T / Light Italic
A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z
a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x y z
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9

Rockwell
A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z
a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x y z
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9


Helvetica Neue
A B C D E F G H I J K L M N O P Q R S T U V W X Y Z
a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x y z
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9



X HIL DA
Alaine Agirre




12etan BERMUTA
Jasone Osoro



HONDAMENDIA
Xabier Montoia



**LARANJA BAT
ZABORRETAN**
Patxi Zubizarreta



KEAREN FIORDOA
Iñaki Petxarroman

Bizi literatura

elkar

www.elkarargitaletxea.eus



LITERATURA- REKIKO GRINA

HEGATS